

ASTELEHENEKO Goienkaria

2008ko otsailaren 25a > Astelehena > IV. urtea > 179. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Industria eraikinen erabileraren eredu ederra da Bergarako kirolegeia"

Iñaki Uriarte
Arkitektoa > 06



G2a

Biarritz Balleta:
maitaleen oin
jostariak > 23

ARAMAIO
Suhiltzaileekin saioa egin zuten
aramaiorrek zapatuan > 09

BERGARA
Gobernuak etorkizunerako asmoak
azaldu dizkie herritarrei > 11

FUTBOLA
Mondrak irabazi eta Aloñak eta
UDAK berdindu > 19

POLITIKA > MARTXOAK 9

Alderdiak hasi dira kanpainan

Hainbat ekitaldi izan ditugu aste bukaeran
Debagoiengan > 04-05

KIROLA > TXIRRINDULARITZA

Amateur mailako tropela abian

Amateur mailako denboraldiaren lehen proba jokatu zen atzo Soraluzen eta ibarreko txirrindulariak lan txukuna egin zuten. Unai Arantzabal bergararra bigarrena izan genuen helmugan, Amador irabazlearengandik minutu batera. Itzaropentsu dira gure ziklistak denboraldi berriari begira. > 15

OÑATI > ERAIKUNTZA

Industria pabiloiak Urbietan

Enpresa txiki eta zerbitzu arloko negozioendako > 12



PASEOAN Eguraldia lagun, ehunka debagoiendar ibili dira paseoan egunotan. Goiko argazkia atzo Bergaran ateratakoa da.

JOSETXO ARANTZABAL

AISIALDIA > IBILALDIAK

'Oinez Debagoiena', gure ibarra ezagutzeko gida paregabea

DEBAGOIENA Mankomunitateak kaleratu berri duen liburuan 21 ibilaldi jaso dituzte

OINEZ Debagoiena goitik behera ezagutzeko aukera ematen du liburuak

HERRIZ HERRI Oñatikoak dira irteera gehienak, zazpi, baina herri denak agertzen dira > 2-3

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Saillatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32



MEZA Juan Maria Uriarte Aozaratzako ermitan meza ematen.

JOSETXO ARANTZABAL

ERLIJIOA > BEATOEI OMENALDIA

Juan Maria Uriarte gotzaina Aretxabaletan izan zen atzo

Juan Maria Uriarte Donostia elizbarrutiko gotzainak Aretxabaletako Aozaratzako auzoan meza eman zuen atzo, domeka. Joan den urriaren 28an Erroman beato egin zituzten Miguel Leibar eta Sabino Aiastui marianistak omendu zituen Uriarte gotzainak. Jende dezente batu zen Aozaratzan, hainbat apaiz marianis-

ta, ibarreko erlijiosoak, eliztarrek eta omenduen senideak tartean.

Atzoko elizkizunean Sabino Aiastui beatoaren Seberiano anaia ere oroitu zuten. Seberiano Aiastui apaiza azaroaren 8an hil zen Madrilan. Behartsuen alde makina bat lan egindakoa zen Seberiano Aiastui. > 04

AISIALDIA > IBILIAK

'Oinez Debagoiena': ibarra goitik behera ezagutzeko gida

AUKERA ZABALA 21 irteera jasotzen ditu Debagoieneko Mankomunitateak egin duen liburuak

LABURRENA ETA LUZEENA Laburrenek 5,5 kilometro dituzte luzeenak, berriz, 16 kilometro

DEBAGOIENA Oñatiko zazpi irteera jaso dituzte; Gatzagako hiru; eta gainontzeko herriek, Eskoriatzak izan ezik, bina dituzte

MIRIAN BITERI > BERGARA

Mendira joaten garenean askotan ibarretik kanpo ateratzeko ohitura dugu, etxe ondoan daukaguna ezagutu barik. Horri buelta emateko eta inguruko paraje ederak ezagutzera emateko asmoz, *Oinez Debagoiena* liburua argitaratu berri du Debagoieneko Mankomunitateak, Gipuzkoako Mendi Federazioaren laguntzarekin.

Liburuaren lehenengo zatia eskualdeko mendi ibilaldien gainekoa da. Guztira, 21 ibilbide labur azaltzen dira bakoitza, egun batean egiteko modukoa. Bailarako zortzi herrietatik zeharkatzen dira guzti horiek: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati.

Irteerak azaltzen hasi aurretik, mendian aurki dezakegun seinaleztapenari buruzko informazioa aurkituko dugu: GR ibilbide luzeetan, PR ibilbide laburretan eta SL tokiko bideetan azaltzen diren marken irudia eta esanahia dator. Ibarreko ibilbideei dagokien seinaleztapena horia da; PR ibilbide laburrena, hain zuzen ere.

Jarraian, hainbat aholku topatuko ditu irakurleak, hala nola, natura eta eraikuntza zaharrak zein antzinako aztarnak errespetatzea, zuhaitzetan edo harrietan markarik ez egitea edo zaborra norberaren etxera eramatea.

Antzuolako ibilaldiekin hasien da *Mendi ibiliak Debagoienan* atala. Uzarraga-Galartza-Lizarraga-Irimoegi Goena irteera da lehena. Goiko partean PR-GI 98 horiz idatzita agertzen da. Alegia, Gipuzkoako ibilbide laburrari dagokion zenbakia. Ibilbideari buruzko laburpena dago ondoren: "Paisaia ederraz eta naturaz gozatzeaz gain, ibilbide honek Antzuolako nekazal auzoetan sakabanatuta dauden baserriak ezagutzeko aukera ematen digu". Distantzia bederatzi kilometrokoa dela eta hori hiru bat orduan egin daitekeela dio, baita desnibela zenbatekoa den ere.

INTERESGUNEAK

Testuan ibilbidearen gaineko azalpenak ematen dira: jarraitu beharreko argibideak eta igarotzen diren tokien gaineko datuak. Hurrengo ibilbidearekin hasi aurretik, bakoitzaren interesguneak azpimarratzen dira.

Ibilbide laburrenek 5,5 kilometro dituzte: Leintz Gatzagako Aitzorrotz mendikoa eta Oñatiko Kortabain, Arantzazuko base-



KURTZEBARRI Irudian, atzean, Kurtzebarri mendia. Eskoriatzako Bolibar auzotik ateratako argazkia.

MIRIAN BITERI

rrietan barrenekoa. Ordu eta erdi beharko du mendizaleak horiek egiteko. Irteera luzeenak, berriz, Bergarako Tumuluena xenda eta Arrasate-Arantzazu Erromesbidea dira. Bakoitzak 16 kilometro ditu. Lehenengoa lau ordutan egiteko aurreikusita dago; bigarrena, aldiz, bost ordutan.

Ibilbide kopuruari dagokionez, Oñati da gehien dituen udalerria: zazpi. Batzuek Aizkorri-Aratz parke naturala zeharkatzen dute. "Oñati udalerririk handia denez, aukera asko eskaintzen ditu. Oñatiko Udalak bideratu zituen zuzenean ibilbide horiek", esan du Mankomunitateko Turis-

mo teknikari Ana Herizek. Bigarren postuan, Leintz Gatzaga dago, hirurekin. Antzuolak, Aretxabaletak, Arrasatek, Bergarak eta Elgetak bina dituzte; eta Eskoriatzak bakarra.

Debagoienetik igarotzen diren ibilbide luzeak ere jasotzen ditu: GR 120 Hiru Tenpluen ibilbidea,

Loiolatik Arantzazuraino doana, Antiguako baselizatik igaroz; GR 34 Donostia-Arantzazu; eta GR 121 Gipuzkoari bira.

Debagoieneko ondare kulturala eta naturalari buruzko informazioa ere jasotzen da: Erdi Aroa, elizateak, jauregiak eta dorretxeak, XVI. mendeko erretaulak, arte garaikidea, Aizkorri-Aratz parkea, museoak eta bisita gidatuak eta jaiak, besteak beste. "Gai nagusia mendia bada ere, arte, historia eta naturarekin lotutako proposamenak ere egiten dira", dio Herizek. Bailarako zerbitzuak daude, azkenik, liburuan.

Oinez Debagoiena ez da proiektu berria. Herizek gogorarazi du 2000. urtean eman zirela lehen urratsak. Mendi ibilaldi bakoitza seinaleztatu eta homologatu behar izan da aurretik. "Irteera bakoitzarekin batera, fitxa bat egiten genuen. Baina, materiala agortu zen eta guztiak liburu batean bilzteza erabaki genuen", dio.

Ibilbideak balizatuta daude, bakoitzari dagokion kolorearekin. Herizek azaldu duenez, "urtero seinale eta panel informatiboen mantenua egiten dugu". Liburuarekin batera, mapa bat dator, mendi ibilaldiak seinaleztatu. Eskualdeko nahiz kanpoko liburudendetan dago *Oinez Debagoiena* salgai, 14 euroren truke.

'Oinez Debagoiena' liburuan jasotako ibilbideak

		IRAUPENA	DISTANTZIA
PR-Gi 98	Antzuola: Uzarraga-Galartza-Lizarraga-Irimoegi Goena	3 ordu	9 km
PR-Gi 101	Antzuola: Basalde auzoan zehar	2 ordu	7 km
PR-Gi 92	Aretxabaleta: Izurieta-Galartza-Gellao-Apotzaga elizateak	2 ordu 30 min	8,2 km
PR-Gi 97	Aretxabaleta: Oro-Larrino-Urkulu urtegia-Aozaratza	2 ordu	6 km
PR-Gi 96	Arrasate: Udala-Besaide	2 ordu 30 min	6,4 km
PR-Gi 91	Arrasate: Erregebide-Bedoña	2 ordu 15 min	8 km
PR-Gi 93	Bergara: Trenbide xenda: Goiko estaziñutik Osintxura	3 ordu	10,5 km
PR-Gi 94	Bergara: Tumuluena xenda	4 ordu	16 km
PR-Gi 95	Elgeta: Intxorta-Asentzio	2 ordu	6,5 km
PR-Gi 90	Elgeta: Elgeta-Aixola urtegia	4 ordu	14,7 km
PR-Gi 99	Eskoriatza: Borlibarko elizateatik zehar	3 ordu	8,6 km
PR-Gi 36	Leintz Gatzaga: Aitzorrotz	1 ordu 30 min	5,5 km
PR-Gi 37	Leintz Gatzaga: Hiruerreketa	3 ordu	8 km
PR-Gi 38	Leintz Gatzaga: Isuskitza	3 ordu 30 min	9,2 km
PR-Gi 102	Oñati: Araotz: uraren ibilbidea	4 ordu	13 km
PR-Gi 103	Oñati: Arrikruz. Kontrabandisten bidetik	3 ordu 30 min	8,5 km
PR-Gi 104	Oñati: Kortakogain. Arantzazuko baserrietan barrena	1 ordu 30 min	5,5 km
PR-Gi 105	Oñati: Arantzazu. Ezkutuko Arantzazu	2 ordu 30 min	7 km
PR-Gi 106	Arrasate-Oñati. Erromesbidea	5 ordu	16 km
SL-Gi 10	Oñati ekitaldea. Aloñapeko ibilbidea	2 ordu	8,5 km
PR-Gi 107	Oñati mendebalde. Garagaltza auzoari itzulia	2 ordu	6,5 km

HAINBAT IBILBIDE AUKERAN



Irudian, Basalde auzoko baserria. DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Antzuola, Basalde auzoan zehar

Natura eta arkitektura nahasten dira. Antigua baselzitatik abiatu eta Irmoegi Goena auzoko errepidea hartuko dugu, *Los Vascondos* trenbidearekin topo egin arte. Basalde auzotik San Blas ermitarantz doan bidetik joango gara eta Altzetatik, Iraingo erreka ondotik, Antzuolara itzuliko gara.



Urkulutik paseatzeko aukera ematen du ibilbideak. IMANOL SORIANO

Aretxabaleta, elizateak eta Urkulu

Oro auzoa eta Larrino zein Aozaratza elizateak igarotzen dituen ibilbide hori aukera paregabea da Aizkorri-Aratz parke naturalean, Urkulu urtegiaren inguruak, osatzen duen gune naturala ezagutzeko. Aretxabaletan bertan hasi eta amaitzen da sei kilometroko ibilaldia.



Udala auzoan hasten da irteera. IMANOL SORIANO

Arrasate, Udala-Besaide

Udalatik irteten da bidea, auzoaren erdigunera doan bidearen gainaldetik. Artadi bat pasa ostean, Gazeaga karobietara iritsiko gara eta handik, Artetako txabolarantz abiatuko gara. Jaitsiera laburraren ondotik, pista zabalera irtengo gara, Besaideko iturrirantz doana.



Santutxu ermitatik pasatuko gara. DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Bergara, Tumuluena xenda

Ibilaldi hori Deba eta Urola arroen artean dagoen mendize-rratik doa. Bergaran Elosurako bidea hartuko dugu eta Gorlara iristean Santutxu ermitarantz joko dugu. Agerreko eta Keixetako-Egiako trikuharriak, Maurketako tumulua, Pol-Pol iturria eta Irukurutzeta ere ikusiko ditugu.



Asentzioko baselizak lasai egoteko aukera ematen du. GOIENKARIA

Elgeta, Intxorta-Asentzio

Intxorta eta Gazteluaitz tontorrak eta Asentzioko ermita dira irteera horren gune nagusiak. Bizkaiko eta Gipuzkoako mendiak ikusteko parada izango dugu: Udalatx, Anboto eta Urkiola, besteak beste. Pagadi ederretaz gozatuko dugu ibilbide osoan zehar.



Irudian, Bolibarko paraje ederra. MIRIAN BITERI

Eskoriatza, Bolibarko elizateetik

Bolibarko elizate osoa zeharkatuko dugu: Agiriano baserria, Bolibarko elizatea, Eraña auzoa, Lete auzoa eta Vasco Navarro trenbidea. Nekazal inguru ederrak ezagutu ahal izango ditugu ibilbide horretan. Bidean baso ederrak eta leku historikoak ezagutuko ditugu.



Dorleta Santutegitik pasako gara. IMANOL SORIANO

Leintz Gatzaga, Aitzorrotz

Leintz Gatzaga menderatzen duen Aitzorrotz mendiaren gailurrera igoko gara. Herritik Dorleta Santutegira doan errepidea hartuko dugu. Handik Olaun Beheko baserri ondotik, GI-627 errepidea gurutzatuko dugu. Asfaltatutako pista jarraitu eta Eskoriatzako Aitzorrotzera iritsiko gara.



Bisitarik talde bat Unibertsitatearen klaustroan. GOIENKARIA

Oñati, Aloñapeko ibilbidea

Oñatiko erdigune historikoan hasiko dugu ibilbidea. San Migel Parrokia eta Sancti Spiritus unibertsitatea ikusiko ditugu. Zumeltzegi dorretik nekazaritza giroko auzoetara joko dugu: Larraña, Olabarrieta eta Murgia. Zortzi kilometro eta erdi dituen bueltatxo hori bi ordutan egin daiteke.



Ibilbide luzeak Arantzazutik igarotzen dira. GOIENKARIA

GR34, Donostia-Arantzazu

Ibilbide luzei dagokionez, hirurak Arantzazutik igarotzen dira. GR34 bidea Donostian irteten da eta Gipuzkoa goitik behera zeharkatzen du. Historia kulturala, mendiarekiko atsegintasuna eta sinismen erlijiosoak nahasten ditu. Bost etapatan egitea gomendatzen da, 76 kilometroko ditu-eta.

ERLIJIOA > BEATOEI OMENALDIA

Juan Maria Uriarte gotzainak meza eman zuen Aozaratzan

Miguel Leibar eta Sabino Aiastui beatoak izan zituzten gogoan auzotarrek

Seberiano Aiastui misiolaria omentzeko ere izan zen domekako elizkizuna

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA Donostia elizbarrutiko gotzain Juan Maria Uriarte Aretxabale-tako Aozaratz auzoan izan zen domeka goizean. Meza eman zuen bertako ermitan eta elizkizunean omendu zituzten joan zen urriaren 28an Erroman beato egin zituzten Aretxabale-tako marianistak, Gerra Zibilean fusilatu zituztenak: Migel Leibar eta Sabino Aiastui.

Gotzainaz gain, ermitan izan ziren beste zenbait apaiz maria-nista batzuek, ibarreko hainbat erlijioso, eliztar eta baita omen-duen senideak ere.

JAIOTETXEAK EZAGUTZERA

Juan Maria Uriartek, Migel Leibar eta Sabino Aiastui jaio zireneko Aozaratz auzoa eta hango ermita ez ezik, euren jaiotetxeak ere ezagutu zituen: Zargarai eta Otxal Zelai baserriak.



GOTZAINA Juan Maria Uriarte gotzainak beste hainbat abade izan zituen Aozaratzako ermitako aldarean lagun. JOSETXO ARANTZABAL

Migel Leibar Gasteiz, Cadiz eta Madrilen ibili zen eta zuzendari izan zen Xerezen eta Donostian. Sabino Aiastuik Elorrion hasi zuen ibilbidea eta Segovian ikasketak jarraitu ostean, Donostia-ko, Eskoriatzako eta Madrilgo El Pilar ikastetxeetan jardun zuen.

SEBERIANO AIASTUI OROITUZ

Bestalde, elizkizunean Sabino Aiastui beatoaren anaia Seberiano apaiza ere oroitu zuten. Izan ere, iaz, azaroaren 8an, hil egin zen Madrilen, San Seberiano egunean, hain zuzen ere. Argentinan misiolari modura

ibilitakoa zen eta *apaiz ibiltaria* izenez ezagutzen zuten. Behar-tsuen alde lanean eman zuen bizitza aretxabaletarrak.

Auzotarrek eta inguruko senide eta apaiz lagunek otoitzean gogoratu zituzten hiru elizgizonak Aozaratzan domekan.

EKONOMIA

Banka etikoaz hitzaldia egingo dute

Eguaztenean izango da berbaldia Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan

I. A > ARRASATE

Banka etikoa eta fiare proiektua aurkeztuko dituzte Arrasaten otsailaren 27an, asteazkenean. Horretarako, Alberto Minguezek hitzaldia egingo du Mondragon Goi Eskola Politeknikoan 19:00etan. Banka etikoa zer den azaltzeaz gain, Fiaren helburuak, oinarriak eta egoera, gizarte erakunde babesleak zein diren, parte hartzeko modua eta etorkizuna ere azalduko ditu.

ETIKA ETA EKONOMIA

Fiare proiektuaren asmoa da bankuan dirua gordetzen dutenek jakin dezatela diru hori non dagoen: garapen, elkartasun edo ingurumen gaitara bideratutako maileguetan, esaterako. Izan ere, Erabaki ekonomiko guztien atzean erabaki etikoak daukela uste du Fiare Inbertsio eta Aurrezki Erantzuleen Euskal Fundazioak.

Fiaren baitan 70 erakunde inguru daude: garapenerako laguntzari, ekonomia solidarioari eta gizarte bazterketari aurre egitekoak denak.

TRAFIKOA

Zirkulazio aldaketak Lausitta kalean

I. AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA

Gaur, astelehena, otsailak 25, 09:00etan ibilgailuen zirkulazioaren noranzkoa aldatu egingo dute Lausitta kalean. Ordu horretatik aurrera ibilgailuen zirkulazioa hegoalde-tik iparralderakoa izango da. Hortaz, gidariek Larrin plazatik sartu eta GI-3920 errepidetik, Untzilarako bidetik, irten beharko dute.

SEINALE BERRIAK

Aldaketarekin nahi da auzo horretako bizilagunei erraztea Arrasatera joatea. Errekaraz beste aldera egiten diharduten etxeetako lanekin batera egingo duten bide berria gertu egon artean iraungo du aldaketak eta seinaleak ipiniko dituzte herritarrek ohartarazteko.



JOSETXO ARANTZABAL

Independentziaren aldeko bertso saioa izan zen domekan Bergaran

Ezker abertzalearen deiar erantzunez eta *Independentzia* lelopean, Bergarako pilotalekuan jardun zuten bertsoan Xabier Silveira, Sustrai Colina, Arkaitz Estiballes, Beñat Gaztelumendi, Iratxe Ibarra eta Oihane Perea bertsolariak domekan. Onintza Enbeitaren esanetara, hauteskondeen gaineko aipamenik ez zen falta izan saioan barrena; propio horretarako ipinitako gaietan zein bestelakoetan.

Saioaren amaieran Agurne Barruso Bergarako alkateak hartu zuen hitza hautetsi independentisten izenean eta martxoaren 9rako abstentzioaren aldeko aldarria egin zuen: "Herri honekin dugun konpromiso eta erantzukizun politikoarengatik egin dugu abstentzio aktiborako hautua. Herri interesei eta beharrei begiratuta; eta gezurretan ari dira gure ahuldadeak bultzatuta planteatu dugula diotenak".

BERRIKUNTZA > HITZARMENA SINATU DU MANKOMUNITATEAK

Innovanet sarean sartuko dira ibarreko enpresak

Ibarreko enpresei berritzaile izaten lagunduko dieten ekimenak eta programak bultzatzea da helburua

JASONE ZABALA > BERGARA

Mankomunitateak Innovanet sareari atxikitzeko hitzarmena sinatu du. Innovanet sarearen helburua zera da: enpresei berritzaile izaten lagunduko dieten ekimenak eta programak bultzatzea eta kudeatzea. Horretarako, lehiakortasunaren politika gaur egun zein haritan mugitzen den ikustarazteko jarduerak antolatzen ditu, eta informazioa eta gidaritza eskaintzen du enpresen beharizantara hobekien egokitzeko diren ekimen publikoetara iristeko.

EHUN ERAKUNDETIK GORA

Euskal Herrian sustapenaren eta berrikuntzaren eremuan esku hartzen duten eragileen arteko topagunea izatea da beste helburuetako bat, foro hori euskal enpresa-sare osora hedatzeko, eta, hartara, ekimenak hari finagoetan banatzen direla bermatzeko. Innovanet, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, SPRIk, foru aldundiek, Confebas-



LANA Enpresak berritzaileak izatea du helburu Innovanet sareak.

GOIENKARIA

kek eta Herri Garapenerako Agentzien Elkarteak (Garapen) eta Mankomunitateak eratu dute. Innovanet-en barruan 100 erakundetik gora daude. Bertara edozein enpresa atxikitu daiteke, bai Gipuzkoako enpresarien elkartetik eta baita Mankomunitateak emango dituen

hitzaldi informatiboen bidez, oharra guztiei pasako zaie eta. Oxel Erostarbe Mankomunitateko batzorde buruaren arabera, "enpresek beraien kezka, duda, berrikuntza plan, kudeaketa mota eta bestelakoak leku konkretu batera bideratzea da asmoa".



EROSKI Irudian Eroskiko merkatal gunea, Arrasaten.

GOIENKARIA

LANA > EROSKI

Eroski taldeak ez du zabalduko Aste Santuan

Eroskiren saltokiak itxita egongo dira martxoaren 19an, 20an eta 21ean

JASONE ZABALA > BERGARA

Itxita egongo dira Eroskiren saltokiak martxoaren 19an, 20an eta 21ean. Eroskik, hain zuzen, jakinarazi zuen aurten Aste Santuan, hainbat urtean behin ematen den egoera eman behar dela: jaiegun asko daudela jarraian, alegia. Eta gaineratu zuen, halako kasuetan Eroskiko estatutuen arabera, dendak zabaltu edo ez erabakitze eskubidea dutela.

JAIEGUNETAN DENDAK ITXITA

Horrekin batera, azpimarratu zuten oraindik erabakia hartu barik zutela, egoera aztertzen besterik ez zebiltzala baina

aurreko astean jakin da azkenean itxi egingo dituztela saltoki guztiak.

Hala, Eroskik iragarri du egin duela egoeraren balorazioa eta Aste Santuan ez zabaltzea erabaki dutela. Horrekin batera, garbi utzi gura izan dute euren politika jaiegunetan dendarik ez zabaltzea dela, langileen eskubideak kontsumitzaileen eskubideen aurretik ipintzen dituztelako.

LABen ustez, "igande eta jai egunetan ez zabaltzeko lortutako akordioa indartzen du Eroskiren erabakiak; alderantzizkoa eginda zaila izango litzateke etorkizunean zuzentzea".

Miguel Buen, Gipuzkoako PSE-EEko kongresurako hautagaia gurean

Hauteskunde kanpaina hasi dela eta, egubakoitzean gurean izan zen Miguel Buen Gipuzkoako PSE-EEko kongresurako hautagaia. Lehenengo Eskoriatzan egon zen, eta ondoren Arrasatera etorri zen, eta Paco Gartzia PSE-EEko zinegotzi arrasatearrarekin batera ibili zen Laubide plazan arrosak banatzen. Arrasatera ekarri zuen hizketa gaia ekonomia izan zen.

Buena hitzetan "Arrasate kooperatibismoaren sorlekua da, eta elkarriketa eta akordioak beharrezkoak dira lanak aurrera eramateko, hau izan baita sozialisten jarrera azken lau urteetan".



HAUTESKUNDEAK

EAJko hautagaiak Aroztegi aretoan

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

EAJko ordezkariak Bergara egingo dute bisita gaur, astelehena. Ekitaldia izango da 11:00etan Aroztegi aretoan. Bertan izango dira Gipuzku Buru Batzarreko buru Joseba Egibar, Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano eta Gipuzkoatik kongresurako hautagaitzako EAJren zerrenda buru Jose Ramon Beloki.

POSTA BIDEZKO BOTOA

Bestalde, EAJtik gogorarazi nahi dute posta bidez botoa ematea eskatzeko azken eguna otsailaren 28a, eguna dela. Horren gaineko informazioa herri bakoitzeko alderdiko ordezkarien eskutik jaso dezakete interesatuek.

Iñaki Uriarte (Bartzelona, 1946) arkitektoak industria guneek gaur egungo paisaian duten garrantziaz egin zuen berba eguaztenean, Arrasaten. Kulturatera egindako bisita aprobe-txatu genuen Debagoieneko paisaian industria eraikinak integratuta nola dauden galde-tzeko. Euskal Herrian, gai honetan urte askotako atzerapena dugula esan zigun Uriartek.

Iñaki Uriarte > Arkitektoa

"Industria eraikinen erabileraren eredu ederra da Bergarako kiroldegia"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Iñaki Jauregi arkitektoa Arrasateko Kulturaten egon zen eguaztenean hitzaldia ematen. Industria eraikuntzak eraberritu egin behar direla aldarrikatu zuen. Harekin berba egin genuen hitzaldia bukatu ondoren.

Zer moduz joan da hitzaldia? Gustura zaude?

Hitzaldiaz bi irakurketa egingo nituzke. Alde batetik gustura nago eman dudana hitzaldiarekin eta bukaeran parte hartzaileek izan duten jarrerarekin. Baina, beste alde batetik, lagun gutxi etorri direla esan beharra daukat. Arrasate eta Debagoiena industria lekuak dira; hortaz, harrituta nago jende gutxi etorri delako. Garai batean industria eraikuntzek egungo paisaian duten garrantziaz jabetu behar dugu; baina, kontzientziario falta dago.

Duela aste batzuk Eibarren egon nintzen hitzaldi bera ematen, eta han ere jende gutxi egon zen.

Urte asko dira industria eraikinak eraberritu behar direla aldarrikatzen duzula. Nolatan?

Ni duela bost urte hasi nintzen industria eraikinak eraberritu behar direla aldarrikatzen. Hartarako hainbat hitzaldi eman ditut eta artikuluak ere idatzi ditut. Baina, aldarrikapenak duela 18 urte hasi ziren.

Azaldu egiguzu zein den zuk aldarrikatzen duzuna.

Nik uste dut garai bateko industria guneak eta eraikinak ulertu egin behar direla. Ondoren, gure paisaian duten garrantziaz jabetu behar dugu. Horregatik guztiagatik, eraikinak eraberritu eta berreskuratu egin behar direla aldarrikatzen dut.

Argi eduki behar dugu, herri edo hiri baten, eraikin erlijioso ez gain, beste eraikin inportante batzuk daudela, nahiz eta industria eraikinak izan.

Gizartea kontzientziatu arren, noren esku dago azken erabakia?

Gizartea kontzientziatu ondoren, administrazioa da azken erabakia egin behar duena. Era berean, udal bakoitzak herrian dituen eraikinak eraberritzeko apustua egin beharko luke, eta hartarako, hirigintza arauak aldatu egin beharko lituzkete. Udal ardura-dunek zeresan handia dute hala-



Argazkian, Iñaki Uriarte, Kulturaten emandako hitzaldia hasi aurretik.

MIREIA BIKUÑA

ko erabakietan, baina hitzaldietara ez da alkaterik edo zinegotzirik etortzen. Badirudi, gaiak ez diela axola.

Debagoiena industria tokia da. Nolako paisaia dugu ibarrean?

Garai batean oso inportanteak izan ziren eraikuntza batzuk eraberritu dira. Debagoienean halako adibide garbiak daude; besteak beste, Bergaran Labegaraietan kiroldegia eta Arrasaten, Saiolan eraikina.

Bergarakoa industria eraikinekin egin daitekeenaren adibide garbia da. Ramon Garitano arkitektoak egindako proiektuaren arabera Labegaraietan txarra gordetzen zen eraikina kiroldegiko kantxa nagusia egiteko erabili zuten, eta kiroldegia-kanpoaldeko kantxetan garbia mantendu zuten.

Eguazteneko hitzaldian esan zidaten Arrasateko Aprestuzen Eskolaren egoera tamalgarria

PAISAIA

"Industria eraikinek egungo paisaian duten garrantziaz jabetu behar dugu"

ITALIAN

"Pirelli eta Fiat enpresetako eraikuntza zaharrak museo bilakatu dituzte"

BISITA GIDATUAK

"Bilboko ezkerreko industria erakusteko bisita gidatuak antolatzen ditut"

dela barrutik; baina, Udalak ez duela erabaki zer egingo duen. Duda barik, beste zerbitzu batzuk emateko eraberritu daiteke.

Edozelan ere, beste toki batzuekin alderatuta sekulako atzerapena dugu Euskal Herrian industria arkitekturari dagokionean. Ni, 1986. urtera arte Bartzelonan bizi nintzen, eta bi herrialdeen arteko ezberdintasunak ikusi ditut: Terrasan (Bartzelona), esaterako, hiri erdian dagoen Zientzia eta Teknika Museoa lantegi zahar bat zen, eta paisaian erabat integratuta dago. Hori da lortu behar duguna.

Europako hainbat herrialdeekin alderatuta 30 urteko atzerapena dugu. Adibidez, Italiako Lombardian, Pirelli eta Fiat enpresetako eraikinak museo bilakatu dituzte. Bestalde, Londreseko garai bateko zentral elektrikoa, egun, Tate Gallery museo da. Hori da Euskal Herrian bul-tzatu behar duguna.

Ze eraikin suntsitu dira azken hilabeteotan?

Aipagarriena, duela gutxi Barakaldon suntsitutako Sefanitro izeneko eraikuntza da. Besteak beste, tximiniak eta hozte-dorreak zituen. Eraikinak eraberritu behar dira.

Bilboko ezkerreko industriak erakusteko bisita gidatuak antolatzen dituzu.

Duela 14 urte hasi nintzen eta dagoeneko 200 egin ditut. Arkitektoen Eskolak antolatuta, Bilboko ezkerreko industria eza-gutzeko aukera ematen dut. Normalean taldeak etortzen dira bisitetara. Autobusarekin Firestone enpresa zegoen bidetik sartzen gara. Ondoren, itsasontzia hartzen dugu eta errekatik Barakaldoko, Portugaleteko eta Sestaoko eraikinak ikusten ditugu. Ordu eta erdiko bidaiaren ondoren, Karmelo Uriarteren Meatzarien Museoa ikustera joaten gara.

oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> AHTren gaineko mendi irteera informatiboa

AHTren gaineko mendi irteera informatiboa egingo dute trenaren aurkako herritar batzuek martxoaren 15ean, zapatua. AHTren ibilbidea jarraituko dute. Herriko plazan batuko dira, 10:00etan. Txorizoa eta salda banatuko dituzte.

DEBAGOIENA

> Babarrunaren landaketa, ikasgai

Babarrunaren landaketaren gaineko ikastaroa antolatu du Itsas-mendikoik, Tolosako Babarruna Elkartearekin batera. Edozeini zabalik dago, eta martxoaren lehen hamabostaldian izango da, lau egunetan. Izenematea honako telefonoan egin behar da: 943 69 21 66.

ARETXABAETA

> Katekesiko umeengurasoendako batzarra

Jaunartzea gertatzen dabilzan umeengurasoendako batzarra deitu du Elizbarrutiak; baita kristau fedea eta elkarte sena sakondu gura duenarendako ere. Bihar, martitzena, batzartuko dira Parrokiako lokalean, 18:00etan.

ARRASATE

> 'Ximur xamurrak' liburua eskura daiteke

Edadetuen sexualitatearen gaineko *Ximur xamurrak* liburua pres-

tatu du Udal Sexologia Zerbitzuko Larraitz Arandok, eta zaharren egoitzetako bazkideek badute ale bana eskuratzeko aukera; interesa duten besteek BAZen edo Sexologia Zerbitzuan har dezakete.

ARRASATE

> Ekialdeko eta Mendebaldeko masajeak

Ekialdeko eta Mendebaldeko masaje ikastaroa emango du Jose Luis Abuinek, Musakolako kiroldegian. Izenematea zabalik dago 943 77 01 33 telefonoan. Izena ematen dutenen artean erabakiko dute eguna eta ordua.

BERGARA

> Ate ireki jardunaldiak San Martin Agirren

Ate ireki eguna izango dute San Martin Agirre herri eskolan martxoaren 15ean. Bergarar guztiak daude hara joateko gonbidatuta. 16:30ean hasita, taile-

rrak, erakusketak, zozketak, txokolatada... izango dira; 17:00etan, Potxin eta Patxin pailazoen emanaldia; eta 18:00etan hasita, Eganekin erromeria.

DEBAGOIENA

> EAJ: posta bidezko botoa eska daiteke

Martxoaren 9ko hauteskundeetan posta bidez bozkatu gura dutenek hala eskatzeko aukera dute batzokietan, otsailaren 28ra bitartean, astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 19:00etara.

ARRASATE, ARAMAIO

> Arrasate Institutuaren informazio-bilerak

Arrasate Institutuak 2008-2009 ikasturterako DBHrako eskaintza aurkeztuko du, Aramaion, bihar, martitzena, San Martin Eskolan, 18:00etan, eta Arrasaten, etzi, eguaztena, Musakolako eskolan, 18:00etan.

BERGARA

> Sukaldaritza begetariano ikastaroa

Sukaldaritza begetarianoaren eta nutrizioaren gaineko ikastaroan izena eman daiteke martxoaren 15era arte, kultura etxean. Ikastaroa eguazten arratsaldeetan emango dute, apirilaren 2tik ekainaren 25era arte.

DEBAGOIENA

> EA: posta bidezko bozka, Alkartetxean

EAK jakinarazi du posta bidezko botoa eska daitekeela Alkartetxean, astelehenetik egubakoitzera, 18:00-18:30ean hasita (herriaren arabera). Otsailaren 28ra arte dago horretarako aukera.

ARRASATE

> 'Kontsumitzailea sarean' Internet ikastaroa

Kontsumitzailea sarean delako Internet ikastaroa emango dute eguenean, hilak 28, KZgunean, 11:00- 13:00.

OÑATI

> Ingurumen Astearen barruan, lau hitzaldi

Ingurumen Astearen barruan, honako hitzaldiak egongo dira: *Barrera-efektua faunan* (gaur, astelehena), *Espezie inbaditzaileen eragina ekosistemetan* (bihar, martitzena), *Ondoak, basoetako ezagun ezezagunak* (etzi, eguaztena) eta *Errekak, ura baino zerbait gehiago?* (otsailak 29). Natur Eskolan dira, 19:00etan.

etxeko leihotik



Inazio Arregi > Goienako zuzendari nagusia

Qué bonita es Cuba!

Cuba, *qué bonita es Cuba...* kantatzen zuen nire lagun Joserra Aiastuik duela urte dezenteko lankideen arteko afari bat egiten genuen bakoitzean. Horrela izango da, ez naiz eta sekula Kuban egon, ez mutil zahar gogosi bezala, ez komite internazionalistetakoko kooperante iraultzaile bezala. Kuba urrutitik ikusi izan dut, baina betik sortu izan dit jakinmin sano bat. Kuba eta Fidel, Fidel eta Kuba, beti izan dira errealitate bana ezinak castrismoa baino ezagutu ez dugunontzat.

Gaur errealitate hori haustear dago eta diotenez haize berriak sartuko dira Karibeko irlan. Kontua da ze indar eta norabidetakoak izango ote diren. Hor dago koska.

SESB eta Berlingo paretaren erorketarekin batera, erresuma komunista gehienak mendebaldera irekitzeko prozesuari ekin zioten. Emaitzak ez dira askotan izan bertako liderrek espero zituztenak. Kuba berriz, aldaketa ekonomiko eta sozial gutxiarekin, joan den mendeko hirurogeigarren hamarkadako Espainiaren itxura hartuaz joan da: Partidu bakarra, nekazaritza ahuldua, emigranteen dibisak eta turismoa ekonomiaren oinarri.

Hemengo bide eta irakaspen jarraitu barik, mundura zabaldu behar horretan hegoaldean izango dituzte eredu eta lagun onenak: Lula, Morales, Bachelet...

"Haize berriak sartuko dira Kuban. Ze norabidetakoak? Hor dago koska"

> Autobusa. Haurrek ez dute ezer ordaindu beharko autobusa erabiltzearen. Mila abantaila baina erabilpen eskasa. Zenbatera iritsi beharko da gasolina ljenideak garraio publikoa lehentsi dezan?

> Bergara. Udal gobernuak kultura, turismoa eta alor akademikoari lehentasuna eman dio. Agian, arlo akademikoan bederen, Bergarak zuen abantaila desageratu egin zen MU sortzearekin batera.

debagoiendarak kanpoan

Amaia Basabe > Aretxabaleta

"Aretxabaleta faltan igartzen dut, baina orain nire lekua Legutian dago"

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABAETA
Aretxabaletan jaioa da Amaia Basabe, baina Araban, Legutianon, bizi da gaur egun; senarra ere aretxabaletarra da. Beste leku batzuetan ere bizi izandakoa da: Zaragozan eta Gasteizen.

Noiz joan zinen Legutianora bizi izatera?

Hamar urte pasatxo izango dira. Senarra eta biok Gasteizen bizi eta lan egiten genuen, baina aldatzeko gogoia genuen; ez genuen gura hiriburuan bizi izatea, herri baten baizik, beste giro baten, giro euskaldunagoan. Gasteizen, dena inpersonalagoa zen.

Hala, Legutianora etorri ginen; biok aretxabaletarrak izanda, hiriburutik, lanetik, eta familiarengandik bide erdian geratzen da Legutiano.

Aretxabaletatik noiz alde egin zenuen lehenengo aldiz?

Lehenengo, ikasketak egitera joan nintzen kanpora, Zaragozara; Albaitaritza ikastera joan nintzen, 18 urterekin. Handik bost urtera bueltatu nintzen herrira; han urte pare bat eman nituen, eta, hori eta gero, Gasteizera joan nintzen.

Zelakoa izan zen Legutianon bizi izaten hastea?

Hasieran, gaizki ibili nintzen, autoaren mende nengoelako Gasteizera egunero joan-etorria egiteko. Bazkaltzera, adibidez, ezin nintzen etxera etorri; ezin nintzen alde batetik bestera oinez joan... Gogorra egin zitzaidan hemen bizi izatea, horrexegatik. Gero, gauzak hobetzen joan ziren. Bestela, ez dut arazorik izan.



MIRIAN BITERI

Aretxabaletarra Legutianon
Amaia Basabek Gasteizen egiten du lan, eta lehen han bizi zen, baina 10 urtetik gora darama Legutianon.

Zer duzu gustuko Legutianon bizi izateko?

Hemen daukagun lasaitasuna gustatzen zait; baita mendiak eta paisaia ere.

Eta zer kenduko zenuke Legutianotik?

Guardia Zibilaren kuartela. Kontrolak-eta ia egunero izaten ditugu.

Aretxabaletara etortzen zarete senarra eta biok?

Gero eta gutxiago. Joan den astean bertan izan ginen, dena dela. Familia, lagunak... daukagu han.

Jaioterria faltan igartzen duzu?

Apur bat, bai; hango lagunak, hango giroa... Noizbehinka egiten ditut hango lagunekin afariak

eta. Hala eta guztiz ere, ez nintzateke Aretxabaletara bizi izatera itzuliko; bizileku berrira moldatu naiz, eta orain badaukat nire toki Legutianon.

Gasteiztik eta Zaragozatik ezer igartzen duzu faltan?

Ez, ezer ez. Ez zitzaidan gustatzen hiriburuetan bizi izatea.

Legutiano ezagutzera joango litzatekeen debagoiendar bati zer gomendatuko zenioke?

Albertaina igotzeko esango nioke; han monolitoa eta Espainiako Gerrako trintxerak daude bistan, eta oso paseotxo polita da. Urtegi ertzetik paseatzera ere joan daiteke, eta gero, plazan ardoa eta pintxo hartu. Horrez gain, beti dago jairen bat: Kofradiak, San Blasak...

kale inkesta

Hauteskunde kanpainaren jarraipena egiteko joerarik baduzu?

Iñaki Madinabeitia
Langilea
Bergara

Normalean bai. Nahi gabe ere segitzen dugu batean eta bestean ematen dutelako horren berri. Ekitaldietara ez naiz joaten. Gainera, betikoa da eta jakin badakigu bakoitzak zer nahi duen.

Martin Guridi
Langilea
Bergara

Telebistan ikusitakotik baino ez dut jarraitzen, aspaldi da ekitaldietara joaten ez naizela. Hauteskunde kanpainak jendea aspertzeko baino ez du balio, nire ustez denok daukagu aspalditik erabakia botoa.

Isabel Barquero
Langilea
Bergara

Ez askorik, nahiko apolitikoa naiz. Gainera kanpainak ez dut uste botoak lortzeko balio duenik, jendeak argi dauka bere ideia politikoak. Alderdiak elkarren kontra jarduteko baino ez da kanpaina.

Eneritz Arriaran
Langilea
Bergara

Ez, ez daukat jarraitzeko joerarik, paso egiten dut. Gainera, jendeak ideiak argi dauka eta kanpainak berak ez dut uste jendearen iritzia aldatzeko adina indar duenik. Jendea engainatzeko besterik ez dute egiten.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> Dendariek kartoiz beteta uzten dituzte kaleak

Dendariek euren zaborra botatzerako orduan besteenganako begirunerik ezaz kexu idatzi du irakurle batek. Haren kexua da dendariek kartoi kopuru handia uzten dutela birziklitzeko kontainerretatik kanpo eta gero, zabor hori kale guztian zehar zabalzen ei da zabor-biltzaileek jaso arte. Irakurleak dendariei eskatu gura die ahalegintzeko hori ekiditen eta modu bat izan daitekeela asteko paper eta kartoi guztia behin atera beharrean, zatika atera dezatela.

DEBAGOIENA

> Kontainerrek ikusmena oztopatzen diete gidariei

Irakurle bat kexu da herri barruetan errepide ondoko zabor-kontainerrek duten kokapenez. Agertzen duenez, sarri kontainerrok zebra-bideetan kokatu ohi dituzte eta auto gidariekin ezin dute ikusi oinezkorik badatorren autoa geratu ezean. Arrisku egoerak sortzen direla ohartzen du irakurleak.

BERGARA

> Bideberriko bide-erdibitzailea zaborrez beteta

Eroski parean dagoen errepideko plastikozko erdibitzaile berdeak duen itxuraz ohartarazteko deitu du irakurle batek. Antza, erdibitzailea zaborrez goraino egoten da jendeak botatuko zabor poltsaz, plastikoz eta paperez. Hori garbitzeko eta zaborra botatzen dutenei jokaera hori aldatzeko eskatu gura die irakurleak.

usteak uste

Julen Iriando

'Harutze ta honutze', arrakastatsu

Oraintxe ez da asko falta Aste Santurako. Oporralditxo horretan kanpora joango da bat baino gehiago. Egun batzuk eduki orduko...

Eta ondo dago, beti da aberasgarria gureaz bestelako txokoak ezagutzea, beste eskualde, herrialde edo kontinente batzuk. Gertatzen dena da, sarri gure inguruaren berri behar beste eduki gabe jotzen dugula kanpoko ezagutzera.

Eta bata eta bestea ez dira kontrajarriak. Izan ere, nahikoa da zapatu goiz bat zeure herria hobexeko ezagutu ahal izateko. AEDk antolatuta, "Harutze ta honutze, Mondrauen" ekimenaren bigarren saioa egin dute asteburuan, eta poza ematen du Erdi Aroari buruzkoak moduan Industrializazioaren gaineko honek ere herritarrengandik jasotako erantzuna ikusteak.

zorroztailea



Markos Balentziaga

Frankismoaren beso luzea

"UPN alderdiak Nafarroan eta Iruñean frankismoaren oroimena gordetzeko itsukeria azaldu arren, Nafarroako Auzitegi Administrazioak Joxe Abaurrea Iruñeko EHko zinegotzi ohiaren aldeko iritzia eman du: Txantreako 20 kalearen izenak (frankismoarekin zerikusia dutenak) aldatu behar dituzte"

Gara > 2008-02-22



Naparruako Auzitegi Administrazioak emondako epai batek hogeitaz kalera izen frankistak aldatzera bihurtzen dau Iruñeko Udala.

2007an Espainako Parlamentuan onartutako lege batek frankismoaren jendaurreko markak kentzera bihurtzen ditu administratiboki. Pentsatzekua denez, napar auzitegiaren erabagia lege horri men egiteaz hartu da.

Nik dakidala, erabagi horrek ez dau hauts haundirik harrotu. Kontuak, baña, baditu begi zoliz begiratzeko moduko saihestak.

Lege kontuetan hiritar aluzinatu bezain ezjakiñ naizen honek badaukat galdera bat edo beste eitteko. Esaterako, Espainako Auzitegi Gorenak finkatu barri daben dotriñiaren arabera ez dago ez bonbarik ipini biharrik, ez armarik eskuetaratu biharrik, ez talde armatuko kide izen biharrik norbait terrorizatatzeko. (Jurisprudenzia horren adibide 18/98 auziaren epai demoniua da. Eta *Egunkaria*-renak be —bildur izatekoa da— bide bera daroia).

Horrek hola izanda, eta Europako eta Espainako Parlamentuak frankismua, dauken moduan, kondenata eukitta, Auzitegi Nazionalako superjuez buruiritziak edo Rubalcaba Espainako Barne Ministeriooko ministrua (GALen dibertsio-sasoian nun eta zetan henbillen pajarillo halakua?) edota Conde-Pumpido Fiskaltzaburua nora begira dare Mayor Oreja edo Manolo Fraga moduko frankismoaren apologistak Auzitegi Nazionalera gonbidatzeko?

Gehituago oraindiko: kontu honetan ez dago terrorismuaren *entorno* doutsuaren jurisprudenzia aplikatzerik eta PPko buruzagitza be —Jaimeren eta Manoloren *entornok* izango dira, ezta?— Auzitegi Nazionalako sotanuetara kafia hartzera eruatzerik? Zein da arazua, Espainako —eta Euskadiko!— auzitegi nagusietako juez-jendia PPren bueltakua dala? Hori hala bada pixka baterako buruko miña badogu, ez gaitian engañau.

"Lege batek frankismoaren markak kentzera behartzen ditu administratiboki"

"Nora begira dare Mayor Oreja edo Fraga moduko frankismoaren apologistak?"

Goienkaria

Argirarazteilea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredakzioa Jon Bereibar, Iritzi Agirreazaldeggi eta Julen Iriando Oinarriko diseinua Goro Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.comORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarora Lizenziaduna 31 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.comHarpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13 Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Isabel Aramendia historialaria, 'Harutz eta honutze Mondragoen' ekimeneko gidari > 10



> **BERGARA**
Udal gobernuak kultura asmoen berri eman zien herritarrei egubakoitzean, udaletxean > 11



> **OÑATI**
Hamabi industria pabiloi eraikiko ditute Goribar auzoko Urbieta gunean > 12

ARAMAIO > SUHILTZAILEEN IKASTAROA ZAPATUAN

Su itzalgailuak eta mangerak eskutan hartuta, sua mendean hartzera

TEORIA

Suaren gainean jakin beharreko oinarriko gauzak erakutsi zizkieten suhiltzaileek

PRAKTIKA

Hainbat motako itzalgailuak eta mangera nola erabili ikasi zuten



ITZALGAILUAK Hautsezko, CO²ko eta urezko itzalgailuak erabili zituzten. J. ARANZABAL



EDUKIONTZIA Itzali beharreko sua edukiontzian piztu zuten. JOSETXO ARANZABAL

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARAMAIO

Zapatu goizean Aramaioko kiroldegira gerturatu eta suhiltzaileen kamioia eta autoa bertan. Su arrastorik eta ke usainik, ordea, ez inguruan. Baina suhiltzaileek ez zuten alperrik egin Aramaio-rako buelta. Inoiz suterik izango balitz herritarrak gertu egon daitezkeen oinarriko ezagutzak irakastera joan baitziren bertara.

Joseba Jauregi Zerbitzuetako zinegotziak azaldu zigun zein izan zen ikastaroa antolatzeke arrazoia: "Ikusi genuen premia zegoela herrian zerbait gertatuz gero herritarrek izan zezaten oinarriko ezagutza. Bestalde, boluntario talde bat sortu nahi dugu suterren bat-edo izanez gero, Gasteiztik edo Oñatitik etorri beharko balira suhiltzaileak, horiei laguntzeko bai herrian bertan kokatzen eta baita arazoa konpontzeko jardunean ere".

Udaletzeko langileak, zinegotziak, auzo alkateak eta hainbat auzotako ordezkariak, guztira 20 lagun inguru izan ziren ikastaroan. Kultura etxean suhiltzaileek azaldu zieten besteak beste sua nola sortzen den eta sortuz gero zer egin daitekeen.

FRONTOIAN SUA ITZALTZEN

Frontoira joan ziren gero, eta su itzalgailuak eskura ipini zizkieten; tamaina eta eduki ezberdinekoak: hauts balio anitzekoak; CO₂koak eta urezkoak. Mota bakoitzekoak sua nola itzaltzen duen bertatik bertara ikusteko ez ezik erabiltzeko aukera ere izan zuten.



KASKOA Suhiltzaileen arropa eta kaskoa izan zituzten aukeran. JOSETXO ARANZABAL

Suhiltzaileek azaldu zieten presioa begiratu behar dela lehenengo; gero itzalgailua batera eta bestera astindu; itzalgailuari lepotik heldu eta segurtasun uztaia-ri tiratu ondoren, gogor badago lurrean jarri eta zapalduta ken daiteke; sutara hurbildu aurretik probatu egin behar dela; eta azkenik sutara askorik gerturatu gabe, haizearen kontra, sigi-saga itzali behar dela sua.

Banan-banan egin zuten proba ikasleek itzalgailuekin. Horretarako, edukiontzi berezi batean suhiltzaileek eurek gertatu zuten sua gasolina, gasolioa eta alkohola erabiliz. Batzuek segituan, apur bat gehiago kostata besteak, baina txukun moldatu ziren.

Iñigo Lopez de Alda suhiltzaileak esan digunez, "teoria azaltzen diegunean jendeak ulertzen du sua arriskutsua izan daitekeela, baina beldurra praktikan kentzen da, ikusita hainbesterako ez dela. Beti ere prebentzioarekin eta babestuta. Askotan su garrek ematen digute beldurra baina gehiago erreparatu beharko genioke gasari; toxikoak eta itogarriak dira, kaltegarriak".

Ikastaroa parte hartzaileendako baliagarria izango dela uste du Lopez de Aldak. Suhiltzailearekin bat dator ikastaroan parte hartu zuen Fernando Larrañaga gantzagarrak: "Baserrikoa izanik, beti egoten da arriskua ortu inguruan edo zakarrak erretzen sute txikiak

izateko. Hortaz, nahi izan dut ikasi horrelakoetan suari nola aurre egin. Hemendik aurrera beldur gutxiago izango diogu suari jakinaren gainean gaudelako zein portaera duen", esan digu.

Itzalgailuak utzi eta mangera-ekin jardun zuten gero, suari ez ezik uraren presioari ere aurre eginez. Izan zen indar faltan suhiltzaileen laguntza behar izan zuenik mangerari eusteko.

SUHILTZAILE PARKEA HERRIAN

Ikastaroan oinarriko kontuak ikasi dituzten arren, asmoa da Aramaion sortuko duten boluntario taldeak prestakuntza gehiago jasotzea, sua ez ezik uholdeak eta bestelako larrialdiak ere sor dai-

tezkeelako. Joseba Jauregik esan digunez, "Jauriaritzak dirulaguntza ematen du materiala erosteko: mangerak, arropa, palak... Gainera, asmoa dago hemendik urte batzuetara Aramaion bertan suhiltzaile parke txiki bat ipintzeko. Bi edo hiru langile izango lituzke eta herriko boluntarioek eurei lagunduko liekete".

Bestalde, ikastarora joan ez direndako suak itzaltzearen gaineko argibideak emango dizkien txosten bat gertatu eta etxetan banatu nahi dute.

Sua eta ura, belaunetik behera dio esarak. Suari pare pare eta beldurrik gabe aurre egiten irakatsi zieten zapatuan suhiltzaileek aramaioarrei.

Isabel Aramendia > Historialaria

"Industrializazio hasierako ugazabek oso mentalitate paternalista zuten"

UBANE MADERA > ARRASATE

Industrializazioa oinarri hartuta, zapatuan *Harutze eta Honutze, Mondrago* enekimenaren beste edizio bat egin zuten. Isabel Aramendia izan zuten gidari. Historialaria eta museo hezitzailea da, Arrasateko Erakusketako Industrialean ibilitakoa. Eskoriatzako Ibarraundi museoan dihardu orain. Arrasatearen garrantziaren gainean jardun zuen, besteak beste.

Noiz arte jo behar da atzera Arrasate eta industria lotzeko?

Gaur egun Arrasate izena entzuten dugunean datorriguna burura da kooperatibismoa. Baina garai baten, eta XIII. mendera jotzen badugu, konturatzen gara Arrasate oso-oso ezaguna zela altzairugintzak zeukan garrantziagatik. Gure mehea, Udalatxko mehatzietatik ateratzen zen mehea oso kalitate onekoa zen. Baina ez bakarrik hori; Arrasateko ola-gizonek erabili zuten prozesuarengatik ere izan zen arrakasta.

Prozesu ez zuzena izan zen. Bi fasetan egiten zuten Arrasaten. Lehenengo fasean burdina lantzen zuten arraia lortzeko eta bigarren fasea betetzen zuten tiradera izeneko beste burdinola txikiago batzuetan. Hortik altzairu araztua ateratzen zen, depuratutakoa, garbia. Eta horretan zetzan hemengo altzairugintzaren arrakastak.

Olarte kalean zeuden tiradera horiek, burdinola txiki horiek. Hortik kalearen izena.

Eta burdinolak eta gero, zer?

Burdinolak abiapuntu moduan hartuko ditugu, izan ere, denboraren poderioz krisialdi sakon batean sartu ziren. Baina desagertu baino, nik esaten dut eraldatuz joan zirela. Eraldatze horrek esan nahi du, kasu askotan, burdinolak errota bihurtu zirela; errota horiek tailer txikiak bihurtu ziren gero, eta tailer txiki horiek dira geroko lantegiak izango direnak. Guztiak du bere zergatia, batak eramaten gaitu bestera.

Zuen ibilbidean Cerrajera gunea ere bisitatu duzue...

Industrializazioak Estatu espainolean hiru gune izan zituen batez ere: Katalunia, Asturias eta Euskal Herria. Euskal Herria bagatoz, Gipuzkoan hasi ziren ekintza individualen artean kokatzen dugu Union Cerrajeraren sorrera. Lantegi txikitxo baten du sorrera: Vergarajauregi, Resusta y Compañian; 1879an sortu zen. Baina, pentsa, 1930eko hamarkadan, 1.000 langile baino gehiago zituen. Horrekin nahiko esaten dugu. Eta enpresa integra-



Isabel Aramendia, zapatuko ibilaldian.

GOIENKARIA

"XIII. mendera jotzen badugu, Arrasate oso-oso ezaguna zen, altzairugintzarengatik"

"1924an Union Cerrajerak sortu zuen, Yale sistema erabilita, giltza plano"

la bihurtu zen. Hori oso garrantzitsua da. Mehatik abiatuta, fabrikazio prozesu osoa hartzen zuten: lehengaita hartuta, produktua bukatu arte.

Sarrailak, alegia.

Produktzioari dagokionez, 1.000 produktu desberdin zituen. Guretako ezagunenak, sarrailak. Eremu horretan errota edo produktu nahikoa inportanteak izan zituzten. Adibidez, 1924an sortu zuten lehenengo aldiz giltza plano, Yale sistema erabilita.

Aitzindaria izan zen Estatuan, ordura arte, giltza guztiek forma borobila zuten-eta. Izango litzateke bonbilodun sarraila.

Beste produktu nahikoa garrantzitsu bat izan zen plantxa, ikatz plantxa; 1909an lehena izan zen Union Cerrajera halako plantxa bat ekoizten penintsula mailan. Gero, 50eko hamarkadatik

aurrera, dibertsifikazioa etorri zen eta gurpilak eta butanozko bonbonak ekoizten hasi ziren.

Fabrikak albo batera utzita, industrializazioarekin lotutako beste aspektu batzuren arrastoak ere badira Arrasaten, ezta?

Gertatzen zena zen gugazabek mentalitate oso paternalista zutela. Hori gertatzen zen inguruko lantegi guztietan. Eta langileekin harremana zuten bestelako aspektuak ere ukitzen edo lantzen ahalegintzen ziren. Horien artean, j13

j langileendako etxebizitzak sortu zituzten, euren behar erlijiosoak asetzeko kaperak (Musakolako San Isidro, 1945), osasun beharrak asetzeko zerbitzuak (dispensario antituberkuloso, 1946, Union Cerrajerarekin batera beste enpresa batzuk ere parte hartu zuten haren sorreran) eta zelan ez, kirolak; hortxe zegoen Cerrajeraren igerileku-gunea, kirola egitekoa, futbol-zelaia eta abar.

Eta jakina, Etxe Txikiak ezin ahaztu... Hori ere garaiko isla zen. Modelo anglosaxoiari jarraituz egin ziren, nahiko bereziak: txikiak, baina lorategiarekin.

Aramendiak esandakoa entzunda, duda barik, Arrasateko industriarekin duen lotura askoz luzeagoa da historian eta protagonistetan. Beste ibilbide bat baino gehiagorako emango luke horrek.

> GARRAIOA

Arrasateko urbanoan txartel bakarria ezartzeko pausoak egiten dabil Udala

Astelehenerokoari jarraituz, udal gobernua batzarra egingo du gaur eta landuko dituen gaien artean, bada bat Arrasateko urbanoaren gainekoa. Hain zuzen ere, Arrasateko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari galdetuko dio herriko urbanoan txartel bakarria ipintzeko baldintzen gainean. Horrekin batera, hainbat lan poltsa sortzeko hautaketa deialdia egitea landuko dute. Eta besteak beste, datozen hilabeteotan izango diren hainbat ekitaldiren gainean jardungo dute: Udaberriko IV Musikaldiari buruz, adibidez.

> HEZKUNTZA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskaintza aurkeztuko du Arrasateko Institutuak

Matrikulazio garaian gauden honetan, etzi, eguaztena, 2008-2009 ikasturterako DBHn duten eskaintza aurkeztuko dute Arrasateko Institutuan. Hain zuzen ere, hitzordua egin dute etzi, eguaztena, Musakolako eskolan. Interesa duen edozein joan daiteke, 18:00etan.

Bestalde, institutuko eskaintza Aramaion ere aurkeztuko dute oraingo astean. Kasu honetan, martitzenean (bihar) egin dute hitzordua, 18:00etan, San Martin Herri Eskolan.

ARRASATEKO UDALA > INGURUMENA

Nafarroa etorbideko ezkiak kendu egin behar dituzte

Kendu behar dituzten zuhaitzen lekuan, bertakoak landatuko dituzte, haritzak, pagoak edo antzerakoak

Horrez gainera, obra horien inguruko espaloia berritu egin behar dute eta horrek zuhaitzei kalte handiagoak eragiteaz gainera, behin obrak bukatuta, espaloia erdi-erdian geratuko lirake ezkiak. Eta segurtasun arrazoiak ere aipatu dituzte: "Azkeneko hiru urteotan ezkiak ez dira inausi obra barruan geratzen zirelako. Hori dela-eta, haien itxura estetiko asko hobetu da, baina galdu dute segurtasun maila", azaldu du Moises Altunak, Obra saileko teknikari-buruak.

ZAHARREN PARTEZ, HEMENGOAK
Hori ikusita, hainbat alternatiba aztertzen ibili dira Udalean, baina ez dute beste irtenbiderik aurkitu eta erabaki dute 19 ezkiak kendu eta haien partez zuhaitz ilara berria landatzea, behar bezala lerrotatuta. Gainera, erabaki dute ezkiak partez, bertako zuhaitz motaren bat landatzea, adibidez, haritzak, pagoak edo astigar arruntak, haiek zaintzea errazagoa delako.

L.Z./U.M. > ARRASATE

Nafarroa etorbideko zati batean dagoen zuhaitzia txukundu egingo du Udalak. Hain zuzen ere, hiltegi biribilgunearen eta INEMeko bulegoaren artean dagoen zuhaitzia. Hori egiteko, orain dauden zuhaitzak kendu eta berriak sartuko dituzte.

ZUHAITZAK KENDU BEHAR

Udaleko ordezkariak emandako azalpenen arabera, inguru hartan eraikitzen dabilzan babes ofizialeko etxebizitzaren parean 19 ezki daude ilaran. Baina azken urteotan inguruko zuhaitz horiei, zauriak.



PRENTSAURREKOA Moises Altunak eman zuen aldaketen berri.

GOITB

UDALA > HERRITARREKIN HAUSNARKETA

Gobernuak kultura asmoen berri eman zien herritarrei

Egubakoitzeko bileran 82 herritarrek hartu zuten parte; Barruso alkatea pozik jasotako erantzunarekin

EDU MENDIBIL > BERGARA

Udal gobernuaren bando-deialdiari erantzunez, 82 lagunek hartu zuten parte egubakoitz iluntzean osoko bilkuren aretoan egindako batzarrean. Kultura arloan dituzten asmoak azaldu zizkien Agurne Barruso alkateak herritarrei. Barrusorekin batera, Maite Guridi, Enara Minguez, Mikel Elkorobereziabar, Aitor Guridi eta Iñigo Iñurrategi zinegotziak egon ziren batzarrean. Ordu eta laurden inguruko iraupena izan zuen bilera. Nagusiki hauek dira gobernuaren asmoak: auditorioa Miguel Altunako eraikinean, Ibargarain, kokatzea; Seminarioak liburutegia, Aranzadi Ikastola, UNEDen ataltxo bat eta museoa hartzea; eta Arrizuriaga UNEDen egoitza berria izatea. Errotalden gazteendako liburutegia kokatzea aurreikusten du udal gobernuak.

Herritar batek Seminarioa aurreikusitako guztia jasotzeko gertu dagoen galdetu zion alkateari. Egindako azterketaren arabera, baietz erantzun zion Barruso-



HERRITARREKIN Agurne Barruso alkatea herritarrei azalpenak ematen udaletxean, egubakoitzean.

JOSETXO ARANTZABAL

sok. Bestalde, alkateak oso positiboki baloratu du herritarrekin batera abian jarritako prozesua: "Oso ondo baloratu dituzte bilera hauek eta gure proposamenari gehiengo batek ondo edo oso ondo iritzi dio". Aukeratutako 30 herritarrekin egin zuen lehen bilera gobernuak azaroaren 9an eta ordutik herriko eragileekin beste zortzi bilera egin dituzte. 250

lagun inguruk hartu dute parte. Egubakoitzean, herritarrei inketak eman zieten; datozen egunotan iradokizunen buzoian jasoko dituzte erantzunak.

EAJ, KONTRA

Udalbatzako gainerako alderdiekin bildu da udal gobernu eta EAJ izan da erantzuna eman duen bakarra. German Muruamendiaraz

EAJko zinegotziaren hitzetan, "Auditorioa eta UNED Seminarioan nahi ditugu, eta liburutegia Arrizuriagan. Eskolei dagokionez, San Martinek Matxiategiko eraikinak izango lituzke eta Aranzadik espazio gehiago behar izanez gero, 2011tik aurrera Miguel Altuna izan dezake. Edozelan ere, gure ikuspuntua prentsaurreko baten zehaztuko dugu".

> DEIALDIA

Erramu Zapatuan Seminarioko txosna hartzeko deialdia

Erramu Zapatuan Seminarioan jarriko duten txosna hartzeko deialdia egin du Udalak. Bergarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten Kultura edo Kirol Elkarteek, herriko taldeek eta elkarte benefikoei aurkezte eskatzen.

Eskaera aurkezten dutenek 300,51 euroko bermea jarri beharko dute eta esleipena egingo da zozketa bidez.

Eskaerak udaletxean aurkeztu behar dira eta epea bukatuko da martxoaren 4an, 13:30etan. Argibide gehiago, udaletxean.

> IKASTAROA

Azken egunak Hika ikastaroan izena emateko

Jardun euskara elkarteak antolatutako Hika ikastaroan izena emateko azken egunak dira hauek. Ikastaroa martxoaren 3tik 13ra bitartean izango da, astelehenetik eguenera, 19:00etatik 21:00etara, kultura etxean. Ikastaroaren prezioa da 30 euro eta eskolak emango ditu Juan Martin Elexpuruk. Ikastaroaren helburua da hitanoa eza gutzera eman eta herritarrek erabiltzera animatzea.

Izena emateko jo Jardun elkarteak Errotalde jauregian duen bulegora edo deitu 943 76 08 19 zenbakira.

Aritz Alustiza > Erramu Zapatuko herri bazkariko antolatzaileetako bat

"Erramu Zapatuak duen euskal jai kutsua areagotu nahi dugu"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Beste hiru herritarrekin batera udaletxera joan eta Erramu Zapatuan herri bazkaria egiteko ideia aurkeztu zuten. Udalean begi onez ikusi zuten ekimena eta honezkerok egun berezi horretako egitarauan sartu dute herri bazkaria.

Nondik nora sortu zitzaizuen bazkaria antolatzeko ideia?

Iruditzen zitzaizun pena zela goizean feria egotea eta, oro har, jendetza ibiltzea kalean eta bazkal orduarekin batera herria hustea. Gure artean aspaldi berba egin izan dugun gaia da eta aurrean erabaki dugu Udalera jo eta gure proposamena luzatzea.

Nortzuk osatzen duzue talde hori?

Hainbat lagun gara, lau zehazki esateko, eta ez dugu inongo talderik ordezkatzeko; herritar talde bat baino ez gara.

Noiz egin zenuten lehen kontaktua Udalarekin eta nola hartu zaituztete?

Berandu xamar ibili gara, izan ere, duela hiru aste edo joan ginen, baina oso ondo hartu gaituzte. Lehenengo harreman hartan gure asmoak azaldu genizkien eta egin zitekeena planteatu. Hala, Erramu Zapatuan bazkaria egitearena esan genien eta oso ondo ikusi zuten, eurak ere goizeko feriak sortutako giroari nolabait luzapena ematearen ideia buruan zerabiltelako.

Zer da, zehazki, antolatu duzuen?

Erramu Zapatu goizean egongo dira urteroko gauzak: ganadu feria, basorako makineria eta animalia erakusketa, artisau eta jaki postuak, txorimalo lehaketa... Eta aurtengo berrikuntza izango da herri bazkaria. Eguraldi ona egiten badu egingo


dugu Bideberrin eta euria egiten badu, berriz, egingo dugu Seminarioko jolasleku estalian, 14:30ean. 150 bat lagunendako bazkaria aurreikusi dugu.

Bazkaltzeko plater nagusia izango da bildotsa burduntzian eta trikitilariak alaituta egongo da. Arratsaldean txaranga ere egongo da, eta, nola ez, norberak jartzen duen giroa.

Deialdi berezia ere egiten diezue herritarrei.

Bai, Bergarako ikurra maho kolorea denez, bada mahoiz jantzita ateratzea kalera, eta umen kasuan, baserritar jantzita. Azken batean, Erramu Zapatuko feriak duen euskal jai kutsuari etekina atera eta kutsu hori areagotzea nahiko genuke.

Urtean ospatzen diren bestelako jai batzuk antolatzen ere hartuko duzue parte?



Aritz Alustiza, udaletxeko arkupeetan.

JASONE ZABALA

Gure eskaria Erramu Zapatu mugatu da. Hala, herri bazkariak ze erantzun duen ikusiko dugu eta horren arabera ikusiko dugu datorren urtean beste ekitaldiren bat gehitu ahal dakioketen, kontzerturen bat, esaterako.

Ze esango zenieke herritarrei?

Animatzeko mahoiz jantzera Erramu Zapatuan eta dagoeneko bazkarirako txartelak salgai dardela 15 eurotan, Kortazar, Ariznoa, Avenida eta Pol-Pol tabernetan.

ERAIKUNTZA > GORIBAR AUZOAN

Hamabi industria pabilioi eraikiko dituzte Urbietan

Enpresa txiki, tailer eta zerbitzu arloko negozioei zuzendutako pabilioiak izango dira

Aretxabaletako Amaral SL enpresa hasi da lurrak kentzeko lanak egiten


MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko Italde eraikuntza enpresak egingo ditu Goribar auzoan dagoen Urbietan guneko industria pabilioiak. Dagoeneko, Amaral SL enpresak hasi ditu hango urbanizazio lanak. Hain zuzen, industria pabilioien atzealdeko zerbitzu bidea eta eustormak eraikitzen hasi dira. Lanok egitearren 1,4 milioi euro jasoko ditu Aretxabaletako enpresak.

Bestalde, Italde enpresa marxoan hasiko da pabilioiak jasotzen, eta printzipioz, urtea bukatu aurretik amaituta egongo dira.

HAMABI INDUSTRIA-NABE

Urbietan gunean tamaina ezberdineko hamabi industria-pabilioi eraikiko dituzte: txikienek 385 metro koadroko azalera izango dute, eta handienek 850 metro koadrokoa. Gainera, bost metrotik gorako altuera izango dute eta 3,2 tonako garabi-zubia jartzeko prestatuta egongo dira.



URBIETA Lurrak kentzeko makinak hasi dira lanean; pabilioiak, martxotik aurrera jasoko dituzte.

MIREIA BIKUÑA

Pabilioien neurriak ikusita, enpresa txikiendako, tailerrendako eta zerbitzu arloko aktibitateak eskaintzen dituztenendako proposak izango dira.

PREZIO EZBERDINAK

Urbietan guneko industri pabilioi berriak bi solairu izango ditu. Goiko pisuko metro koadro 785 eurotan salduko da eta bigarren

pisukoa, 842 eurotan. Hala, 350 eta 500 metro inguruko pabilioien prezioa 340.000 eta 450.000 euro artean egongo da; eta handienena 600.000 euro inguruan.

KIROLAK > TRIATLOI TALDEAK ANTOLATUTA

Oñatiko duatloirako izenematea, zabalik

Martxoaren 15ean, arratsalde, 16:00etan, jokatu da duatloiren XVII. edizioa

M.B. > OÑATI

Oñati Triatloi taldeak antolatzen duen duatloian parte hartzeko izenematea epea zabalik dago. Hala, federatuta daudenek marxoaren 12ra arteko epea dute izena emateko, eta federatu ez direnek, marxoaren 7ra artekoa.

FEDERAZIOAREN ORRIAN

Izena emateko bide bakarra dago; hain justu ere, Triatloi federazio-ko web gunean eman behar dute izena, han dagoen izenemate orria beteta. Ondoren, Kutzako edo Euskadiko Kutzako kontu

korronteetan ordainketa egin behar dute: federatu direnek 20 euro, eta federatu ez direnek, 30 euro.

Oñatiko XVII. duatloia marxoaren 15ean jokatu da. Aurreko urteekin alderatuta ez dago berrikuntzarik. Hala, 16:00etan hasita parte hartzaileek, lehen lehenik, zortzi kilometro egin beharko dituzte korrika. Ondoren, boxean bizikletak hartuta, 42 kilometro bete beharko dituzte. Bukatzeko, herriko kaleetan beste lau kilometro egingo dituzte korrika.



IRABAZLEA Iazko irudian, Mikel Elgezabal helmugara sartzen.

GOIENKARIA

HELMUGA, PLAZAN

Duatloiren irteera eta helmuga plazan egongo dira. Era berean, zapatilak kendu eta bizikleta har-

tzeko gunea ere plazan kokatu dute. Iaz, Mikel Elgezabal eta Virginia Berasategi izan ziren irabazlea.

KONTZERTUA

Musika Eskolako ikasleen kontzertua

Emanaldia eguaztenean izango da Santa Ana antzokian

M.B. > OÑATI

Jose de Azpiazu Musika Eskolako ikasleek kontzertua emango dute eguaztenean, 18:30ean. Santa Ana antzokiko emanaldian, guztira, 18 kanta eskainiko dituzte. Hala, ikasturtean landutako pieza ezberdinak entzuteko aukera izango dute bertaraten diren guztiek.

HAINBAT TALDE

Musika Eskolako neska-mutikoak, bakoitzak jotzen duen instrumentuaren arabera, talde ezberdinetan banatuko dira.

Hala, emanaldia hasteko ahots eta piano taldeak *Fill the well within* lana eskainiko du. Haien atzetik, haizezko instrumentuen taldeak, konboak, gitarra taldeak, pianoak, flauta taldeak, akordeoi taldeak, rock taldeak, eta trikitixa, panderoa, gitarra eta bateria taldeak joko dute. Kontzertua bukatzeko, trikiti eta pandero taldeak arinarina eta fandangoa joko ditu.

EKITALDIK

Ikastolak ateak irekiko ditu barikuan

Haur Hezkuntzako gelak ikusgai egongo dira, 17:00etatik aurrera

M.B. > OÑATI

Txantxiku Ikastolak ate irekien jardunaldia egingo du egubakoitzean, 17:00etatik aurrera; hain zuzen, Haur Hezkuntzako gelak ikusteko aukera izango dute gurasoek. Gainera, musika eta jolasak egongo dira jolaslekuan eta Potxin eta Patxin pailazoan emanaldia ere bai.

Horren harira, Txantxiku Ikastolaren hezkuntza proiektuaren inguruko hitzaldia iragarri dute eguenerako, 18:30ean. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

ARETXABALETA > TAXIEN TARIFA BERRIAK

Aurtengo taxi tarifik onartu ditu Udalak

Banda jaitsierak 2,97 euro balioko du; kilometroak egunez 0,93 eta gauez 1,45 euro; eta itxoindako ordua egunez 17,78 eta gauez 37,95 euro



PREZIO BERRIAK Taxiek tarifa berriak dituzte. Irudian, geltokia.

MIRARI ALTUBE

M. ALTUBE/M.BITERI > ARETXABALETA Astelehenean egindako osoko bilkuran 2008ko taxi tarifik onartu zituzten. Herriko taxi gidariak izan dira prezio horiek proposatu dituztenak eta udalbatzak baietza eman die. Esan beharra dago Debagoiena osoan tarifa berdina aplikatzen direla.

Banda jaitsiera zazpi zentimo igo da; 2,90 eurotik 2,97ra. Kilometro bakoitzeko bi zentimo gehiago ordaindu beharko ditugu, 07:00etatik 22:00etara bitartean. Alegia, 0,93. Gauean egindako kilometro bakoitzak, berriz, 1,48 euro balioko du, joan zen urtean baino hiru zentimo gehiago.

Igoera handienak itxoindako orduetan eman dira. Egunezko ordu bakoitzeko 17,78 euro jarri beharko ditugu orain. Iaz 17,38 eurotan zegoen finkatuta. Gaueko tarifen igoera, berriz, hamar euro baino gehiagokoa izan da: 27,32 eurotik 37,95era.

Joan zen urteko eta aurtengo tarifik

		PASA DEN URTEKOA	AURTENGOA
Banda Jaitsiera	Egunez	2,90 €	2,97 €
	Gauez	2,90 €	2,97 €
Kilometrajea	Egunez	0,91 €	0,93 €
	Gauez	1,45 €	1,48 €
Itxoindako ordua	Egunez	17,38 €	17,78 €
	Gauez	27,32 €	37,95 €

ITURRIA: ARETXABALETAKO UDALA

ARETXABALETA > AURREKONTUAK

Gastu sozialerako partida berriak onartu ditu Udalak

Berdintasun Plana garatzeko eta gazteen egoera ezagutzeko diagnostikoak egingo ditu. Etxeak egiteko udal-ondarea ere handituko du Udalak

Horrez gain, ohiko Etxe-etxe Zerbitzuaren Prestazioa, prebentzio-programa, familia esku-hartzea edo droga-mendekotasun tratamendurako laguntza aurreikusita daude. Jardueraren sozialerako partidak gora egin du %50, eta Basotxori emandako laguntzak %16,5.

EAJ-RI ERANTZUNA

Aurrekontuak Aralar, EA eta Ezker Batua-Berdean aldeko botoa jaso zuen; EAJ, berriz, abstenitu egin zen. Alderdi jeltzaleko zinegotzi Arritxu Olidenek argudiatu zuen berak egindako proposamen garrantzitsuenak ez direla jaso eta adoste prozesua oso informala eta laburra izan dela.

Gobernua osatzen duten taldeek horri erantzun gura izan diote. Aurrekontuen zirriborroa aztertzeke hiru aste izan dituztela eta urtarrilaren 23an, alderdi guztiei zirriborro hori aurkezteko bilera egin zutela gogorazi dute. Batzar horrez gain, beste bitan biltzeko gonbita egin zutela gaineratu dute. Horrez gain, salatu dute EAJk proiektuak jasotako "euroen arabera" sailkatzen dituela. Gauzak horrela, oposizio lana "seriotasunez" egiteko dei egin diote alderdi jeltzaleari.

M.B. > ARETXABALETA

Astelehenean onartu zuen udalbatzak aurtengo udal aurrekontua. Aurreikusitako 12 milioien zati inportante bat gastu sozialerara bideratuko dute.

Partida berriak sortu dituzte: 12 eta 18 urte bitarteko gazteen errealitate soziala ezagutzeko egingo den diagnostikorako 6.000 euro bideratuko dituzte eta Berdintasun Plana garatzeko 19.000 euro. Horrez gain, milioi erdiko partida sortu dute etxebizitzak garatzeko udal-ondarea areagotzeko.

Kirol etxe berria egiteko milioi bat aurreikusi du. Parkeak eta lorategiak egokitzekeo partida 295.000 eurokoa da; herriko jaiak dinamizatzeko partida, 234.000 eurokoa. Hirugarren Mundurako laguntzetara 89.772 euro bideratuko dituzte.

ESKORIATZA > USTEZKO IRREGULARTASUNAK

Ikerketa batzordeak San Juan kaleko lanak aztertu ditu dagoeneko

Frixi enpresak Udalarekin 180.000 euro inguruko zorra duela dio batzordeko presidentek

Aurreko agintaldiko ordezkariak eta lanak egin zituzten enpresen ordezkariak daude deituta gaur egingo den batzarrerara

M.B. > ESKORIATZA

Aurreko agintaldian izandako ustezko kontratazio irregulartasunak aztertzeke ikerketarako batzordeak lanean jarraitzen du. Joan zen astelehenean, San Juan, Hidalgo eta Arana kaleak berrietzeko egin ziren lanak aztertu zituzten batzarkideek. Bere garaian, Frixi enpresa arduratu zen obra horiek egiteaz.

Ikerketa batzordeko presidentek Iñaki Pierruguesek jakinarazi duenez, batzar horretan Frixi "zuzenean" esleitutako obretaz jardun zuten. "Horietako batzuetan ez zuten legeak agintzen duen prozedura jarraitu. Gainera, udal aurrekontuetan ez zen horietarako partidari aurreikusten eta ez zuten udalbatzaren onarpena", azaldu du. Horren harira, enpre-



SAN JUAN Kale horretan egindako lanetaz jardun du batzordeak.

MIRIAN BITERI

sa horrek Udalarekin duen zorra 178.000 euro ingurukoa dela adierazi du Pierruguesek. "Oraingo udalbatzak ez zuen horren gaineko berririk izan alkate ohiak dimisioa aurkeztu zuen arte; joan zen urteko azaroan izan zen hori", dio.

FOTORNE EZ DA IZANGO

Usteko irregulartasunen ikerketa batzordea osatzen dutenek gaur eguerdian bilduko dira berriro. Gaurko batzarrerara deituta daude Eskoriatzako alkate ohi Juan Carlos Bengoa; Hirigintza zinegotzi ohi Josu Ezkurdia; lanen zuzendaritzaz arduratzen

enpresa, Injelan; San Juan kaleko eta Dorleta auzoko lanak egin dituzten enpresak, Frixi eta Fonorte, hurrenez hurren. Bada, azken enpresa horrek dagoeneko jakinarazi du ez duela ikerketa batzordean parte hartuko.

Dorleta auzoko lanen ardura izandako enpresak auzitegiara eraman du Eskoriatzako Udala, "azken likidazioagatik lanen zuzendaritzarekin dituen desadostasunak direla-eta. Enpresa eraikitzaileak 600.000 bat euro gehiago eskatzen dizkio Udalari", azaldu du ikerketa batzordeko presidentek.

IRIARTE

Umeen denda

Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

ARAMAIO

Aitor Etxandia > Sagarlaneko teknikaria

"Sagastiek uzta txarra izango dute, kimaketa, ongarrriketa eta tratamenduak egin ezean"

MIRIAN BITERI > ARAMAIO

Aste bukaeran Aramaioko Sagarza-leen Elkartek bi ikastaro antolatu ditu. Sagarlaneko teknikari Aitor Etxandiak batean hartu du parte. Sagarrondoak nola zaindu behar diren azaldu zuen joan zen zapatu arratsaldean.

Zertaz hitz egin zenuen zapatuko hitzaldian?

Ikastaro praktikoa izan zen, sagastietan egin zen-eta gehiena. Lehenik eta behin, sagarrondoek neguan behar duten kimaketaren gainean hitz egin nuen. Jarraian, sagastiari zelako jarraipena egin behar zaion azaldu nuen. Udaberria hor dago eta beraz, egin beharreko lanen gaineko informazioa eman nuen.

Zeintzuk dira lan horiek?

Hiru lan nagusi daude. Kimaketaz gain, dagoeneko ongarririk botatzen pentsatzen hasi behar gara. Ongarrriketa egin behar da. Horrez gain, onddoen kontrako lehenengo tratamenduak ere egin behar dira udaberri partean.

Hori egin ezean zer gerta daiteke?

Kimaketa egiten ez bada arbolak argitasun gutxiago izango du eta urteko adarrak handituko dira, arbolari indarra kenduz fruitua eman ahal izateko. Ongarrriketa egin ezean, arbolek gose pasako dute eta fruituetan eragina izango du horrek. Tratamenduak egin ezean, onddeak hor jarraituko dute. Laburbilduz, uzta txarra izango dugu. Hala ere, gauza horiek ez badakigu egiten, hobe da ezer ez egitea; txarragoa



Irudian, Sagarlaneko teknikari Aitor Etxandia.

GOIENKARIA

"Gauza horiek ez badakigu egiten, hobe da ezer ez egitea; txarragoa izan daiteke-eta"

"Sagarrondoa nahiko gogorra da. Hemen erdi abandonatuta dauden sagarrondo asko daude eta ez dira erraz hiltzen"

izan daiteke-eta. Horretarako egiten ditugu ikastaroak.

Jarraipena orain baino ez da egin behar?

Ez. Kimaketa urtero bitan

egiten da. Udaberrian arbolari itxura ematen zaio eta udakoak zuhaitza kontrolatzeko balio du. Ongarriketari dagokionez, negu bukaeran botatzen dira materia organikoak. Baina, nitrogenoa botatzekotan, bi zatitan egin behar da: loreak bota aurretik eta ondoren. Tratamendu bakoitzak, bestalde, bere garaia du.

Aramaioko sagastiek badute berezitasunik?

Ez. Inguruko sagastien tanke- ra dute eta beraz, berdin tratatu behar dira. Sagarrondoa, bestalde, nahiko gogorra da. Hemen erdi abandonatuta dauden sagarrondo asko daude eta ez dira erraz hiltzen.

ELGETA > ENKANTEA

Pago bat aterako du Udalak enkantera gaur, eguerdian

Pagoa San Roke ostean aurkitzen da eta ustelduta dago, Udalak enkantera aterako du 50 euroko lehenengo prezioan

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Gau, astelehena, egingo dute enkantea Elgetako udaletxeko osoko bilkura aretoan. Idazkariak egingo ditu enkantegile lanak eta interesatu guztiek dute parte hartzeko aukera, 12:30ean.

San Roke osteko parke berriko lanak egiten ari zirela konturatu ziren beharginak pago bi ustelduta daudela. Zuhaitzetako bat aterako du Udalak enkantera. Esan bezala, hitzordua 12:30ean ipini dute eta pagoaren irteerako prezioa 50 euro izango da. Inork eskaintza handiago egiten duen bakoitzean sei euro egingo du gora prezioak. Horiak dira udaletxetik jakitera eman dituzten arauak.

Ez da lehenengo aldia Udalak antzerako zuhaitza enkantera ateratzen duela. Ohikoena izaten da zuhaitz horien egurra

sutarako erabiltzea. Gaur aukera berria izango dute interesatu guztiek.

PODOLOGIA EGUNEKO ZENTROAN

Erretiratuen Elkartetik, berriz, gogoratu gura dute podologia zerbitzua martxan izango dela hilaren 28an. Erabiltzaile asko daudelako, interesatuak deitu egin behar dute txanda hartzeko. Nati Arrietari deitu behar zaio horretarako, 943 76 80 77 telefono zenbakira.

Kontsulta 15:00etan hasita eskainiko dute Eguneko Zentroan.



ANTZEZPENA Ikasleek ere aktore lanak egin zituzten.

GOIENKARIA

ANTZUOLA > ESKOLAKOAK ARANTZAZUN

Baketik-en antzerki forumean izan dira

Antzerkiaren bidez indarkeria, eskola jazarpena eta arrazakeria prebenitzeko ekimenean hartu dute parte

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Herri Eskolako 4. 5. eta 6. mailako ikasleek hartu dute parte Baketik fundazioak antolatutako ekimen batean Arantzazun. Antzerkiaren bidez, indarkeria, eskola jazarpena eta arrazakeria prebenitzeko ekimena da.

ANTZERKIA ETA ELKARRIZKETA

Egun osoko saioan antzerkia izan zuten lehenengo eta elkarriketa gero. Antzerkian ikasleengatik hurbil dauden egoerak antzeztu ziren (lagun arteko presioak, alboratzeak, irainak, mehatxuak...). Elkarriketan ikasleek istorioaren une onak eta txarrak identifi-

katu zituzten portaerak arrazoi-tuz. Ondoren, ikasleek eurek proposatutako aldatetekin istorioa berrantzeztu zuten.

Antzerki forumaren ondoren tailerra izan zuten. Helburua izan zen harremanetako gatazketan inplikatuak daudenak eta gatazkaren uneak identifikatzea batetik; eta bestetik gatazka ez handitzeko erabil daitezkeen baliabideez jabetzea.

Ikasleek euren bizitzarako baliagarritzat jo zuten esperientzia, harremanak modu egokian izateko erak erakutsi zizkietelako. Irakasleek ere positibo ikusi zituzten bai edukia eta baita metodologia ere.

LEINTZ GATZAGA > DIRULAGUNTZAK

67 mila euroko laguntza basoentzat

Basoaren garapenerako laguntzak hitzartu ditu Aldundiak 2008ko aurrekontuetan; Leintz Gatzagari 67.582 euro emango dizkio

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Abenduan onartu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008ko aurrekontuak. Orduan onartutakoaren berri eman du oraintsu, eta Gipuzkoako udalerrri bakoitzarendako hitzartu duena argitu du.

Gatzagari emango dizkion dirulaguntzen artean garrantzitsuenetakoa errepideetako lanak egiteko izango da. Bide azpiegiturarako departamentuak 46 milioi bideratu ditu errepideetara -guztia udalerriei zuzendua-, eta Gatzagarendako 201.200 euro aurreikusi ditu.

BASOENDAKO LAGUNTZAK

Basoaren garapenerako ere dirulaguntza garrantzitsua jasoko du. Ia 12 milioi euro bideratu ditu Aldundiak baso-arendako, eta horietatik lau milioi pasatxo udalerriei zuzendu die; Gatzagari 67.582 euro hain zuten. Landa Ingurunearen Garapenerako departamentuak emango ditu laguntzok lau partida ezberdinetatik: 14.220 euro bideratu ditu larre eta zelaia implementatzeko; 26.106 euro basoko bideak zabaltzeko; 18.726 euro basoetan egin beharreko tratamenduak; eta 8.530 euro larreendako.

Kirola



> **FUTBOLA**
Aloña Mendik Hondarribiaren aurka berdindu zuen Azkoagainen > 19



> **ELKARRIZKETA**
Amateur mailako Euskadiko futbol selekzioan dabil Kerman Azkarraga > 20



> **ESKOLA KIROLA**
Oñatiko gaztetxoek minisaskibaloiko partiduak jokatu zituzten zapatuan Zubikoan > 21

TXIRRINDULARITZA > AMATEUR MAILAKO LEHENENGO PROBA SORALUZEN

Unai Arantzabalen bigarren postuarekin hasi da denboraldia

Lizarte taldeko Andrey Amadorrek irabazi zuen, Elgetara bidean tropela utzi eta bakarrik iritsita

Debagoiengan zortzi lasterketa egongo dira aurten, lehenengoa Gorlako Igoera, martxo amaieran

JULEN IRIONDO > SORALUZE

Ondo hasi da amateur mailako denboraldia gure txirrindulariendako. Domekan jokatu zen Soraluze euskal egutegiko lehenengo lasterketa, eta lan txukuna egin zuten ibarrekoek. Elgetara bidean Andrey Amadorrek jokatu kolpeari ezin izan zion Unai Arantzabalek erantzun, baina Costa Ricakoaren atzetik helmugara iritsitako artean bergarra izan zen bizkorrena. Bigarren postu bat, beraz, denboraldia hasteko; ez dago gaizki.

Soraluzeko XI. sarian 23 urtez azpiko 137 txirrindularik hartu zuten parte —120 lagunek amaitu zuten—. Ibilbideari dagokionez 112 kilometro egin behar zituzten: aurreneko 80ak nahikoa lasaia, Elgoibarrerantz eta Debagoienerantz joan-etorrian, Soraluze aldapa gogor baina laburrekin. Lasterketa, baina, azken kilometroetan erabaki zen.

Elgetarako igoera hasi aurretik talde txiki bat zegoen lasterketa buruan. Seguros Bilbao, Debarrena, Azpiru, Caja Rural eta Naturgas taldeetako txirrindulari bana zeuden bertan, besteak beste. Talde horretako txirrindulari indartsuena, printzipioz, Gorka Izagirre, Seguros Bilbaoko ormaiztegiarra.

Lizarte taldea, baina, ez zegoen taldetxo horri denbora askorik hartzen uzteko prest. Talde nafarrak ez zuen aurre hartan bere gizonetako bat ere sartu, eta azken kilometroak Andrey Ama-



BAKARRIK Aldapa gora lortutako minutuko aldeari eutsita iritsi zen Amador helmugara.

JULEN IRIONDO

dorrenzat aproposak zirela jakinda, gogoz egin zuen tira ihesaldia bertan behera uzteko.

MINUTUA JAN, MINUTUA ATERA

Minutu bateko alde izan zuen gehienez aurreko taldetxoak. 92. kilometroan zegoen Asentzio gaina. Elgetara bidean, Ueberan gora hasterako tropelak irentsiak zituen aurrekoak.

Batasunak, ordea, ez zuen asko iraun. Andrey Amadorrek atzean utzi zituen gainerako guztiak eta laster hartu zuen minutu bateko alde. Asentzioko gaina harrapatuta, Kanpazartik Epelelora jaitsi eta handik Soraluze arteko bidea egin behar zuten txirrindulariek: azken kilometro horiek bakarrik egin zituen amerikarrak.

Iaz ere makina bat garaipen lortutakoa, denboraldi berria ere indartsu hasi du Amadorrek —orduko 39,77 kilometroko batz bestekoa egin zuen—. Irabazle-arengandik minutu batera zazpi laguneko taldea iritsi zen helmugara, eta hauen buru Unai Arantzabal bergararra, azken metroetan beste seiak gurpiletik aterata.

Amateurrendako probak Debagoiengan

DATA	HERRIA	PROBAREN IZENA	TXAPELKETA
Martxoak 3	Bergara	Gorlako Igoera	23 urte azpikoak
Maiatzak 11	Bergara	Gipuzkoako Txapelketa	Denak
Uztailak 6	Aretxabaleta	Dorletako Ama saria	Euskaldun
Uztailak 13	Antzuola	Antzuola saria	Lehendakari
Uztailak 20	Elgeta	Mendiko Kriteriuma	Euskaldun
Abuztuak 16	Aretxabaleta	Leintz Bailarari Itzulia	Euskaldun
Irailak 20	Oñati	Oñati saria	Lehendakari
Irailak 21	Bergara	Martin Deunaren saria	Lehendakari

sailkapenak

LEHENENGOAK

1. Andrey Amador	2:48:59
2. Unai Arantzabal	1:01era
3. Mikel Filgueira	1:02ra
4. Eneko Echeverz	d.b.
5. Egoitz Gartzia	d.b.
6. Mikel Landa	d.b.
7. Ruben Palacios	d.b.
8. Jon Garate	d.b.
9. Alberto Morras	1:31ra
10. Noel Martin	2:30era
11. Roberto Fernandez	d.b.
12. Mikel Ilundain	d.b.
13. Enrique Sanz	d.b.
14. Ventura Angulo	d.b.
15. Jon Aberasturi	d.b.
16. Arturo Ariño	2:58ra
17. Aitor Ocampos	d.b.
18. Iñaki Gonzalez	d.b.
19. Beñat Urain	3:43ra
20. Gurutz Larrea	d.b.
21. Samuel del Valle	d.b.
22. Gorka Izagirre	d.b.z
59. Asier Penabad	4:58ra
70. Hilario Cordero	d.b.
74. Iban Caballero	d.b.

DEBAGOIENEN TXIRRINDULARIAK

Debagoieneko zazpi txirrindulari izango ditugu aurten amateur mailako tropelean

Hasi berria den denboraldian gure ibarrak izango du ordezkari amateur mailako lasterketetan. Guztira zazpi txirrindulari izango ditugu tropelean, lau taldetan banatuta.

Debarrena, Bidelan eta Bruesa taldeetan bina debagoien ibiliko dira aurten: Asier Penabad eta Iban Caballero bergararrak Debarrenan, Unai Arantzabal bergarra eta Gurutz Larrea antzuolarra Bidelanen, eta Hilario Cordero eta Kepa Otxoa arrasatearrak Bruesan. Gure zazpigarren ordezkaria Kepa Varela bergarra izango da, Cafe Baque taldekoa.

NEGUAN ESKIA, UDABERRIAN BIZIKLETA

Amateurren artean txirrindulari gazteak dira denak: 22 urte dituzte zaharrenek, baina 19 eta 20 urtekoendako Lehendakari Txapelketako lasterketak lehiatuko dituzte gehienek. Kepa Varelaena da, agian, kasu bereziena. 22 urte ditu eta bosgarrena du hau amateur mailan. Urte bakoitzean talde desberdin batean egon da —Debarrena, TKV, Bidelan, Alfus-Tedes eta Cafe Baque—. Aurten Espainiako Kopako lasterketetan hartuko du parte Varela.

Bitxia baita ere Kepa Otxoarena. Apirila aldera hasiko da bizikletarekin lehiatzen. Izan ere, orain eskiko lehiaketetan ari da parte hartzen arrasatearra. Honela, txirrindularitza denboraldiaren hasierak Pirinioetan harrapatu du Otxoa, baina ez hango mendateetan, elurretan baizik.



Asier Penabad
Debarrena

- > Bergara, 19 urte.
- > Bigarren urtea amateurretan eta taldean.
- > lazkoa berdindu nahi luke behintzat.

Bigarren urtea du hau Asier Penabad bergararrak amateur mailan. Lehenengoan moduan Debarrena taldean ibiliko da bigarren honetan ere. Iaz zazpigarren egin zuen Lehendakari Txapelketako bi lasterketetan, Antzuolan eta Markinan. Aurtengorako ze asmo duen galdetuta, gutxienez aurreko urtean egindako lana berdindu gura lukeela dio Penabadek. Ikasten eta lanean ibilita, larri hasi omen du denboraldia; ekainean espero du sasoi hobereana edukitzea.



Iban Caballero
Debarrena

- > Bergara, 18 urte.
- > Gazte mailatik igo berria.
- > Ihesaldietan sartzea eta postuak helburu.

Ilusioz ekin dio Iban Caballero bergararrak afizionatueta ibilari. Gazte mailako Sumofic taldeetik iritsi berria izan arren, Caballero ez dio uko egin nahi aurten bertan ihesaldiren batzutan sartu eta postu on batzuk lortzeko aukerari. Sorraluzen, maila berrian egindako lehenengo lasterketarekin, behintzat, gustura geratu zen txirrindulari gaztea. Gorko Igoeran lan ona egin gura du; dena den, aurrekusten du sasoi onena udarako hartzea, behin azterketak amaituta.



Gurutz Larrea
Bidelan

- > Antzuola, 20 urte.
- > Bigarren urtea Bidelanen.
- > Garaipenerako jauzitxo egin nahian.

Irabaztea, horixe falta zaio Gurutz Larrea Antzuolarrari, duen mailaren berri emana baitu amateurretan egin dituen bi denboraldietan: iaz bigarren Gervais oroimenezkoan, Bergaran eta Oñatin; hirugarren Markinan eta laugarren erlojuaren aurkako Euskal Herriko Txapelketan. "Gerra eman" eta iaz egindakoa hobetu gura du aurten Larreak. Gutxi entrenatu omen du, baina hasiera uste baino hobea izan da. Antzuolarrak ere udan ikusten du bere burua indartsuen.



Unai Arantzabal
Bidelan

- > Bergara, 22 urte.
- > Bigarren urtea Bidelanen.
- > Erregularitasuna mantendu gura du.

Primeran hasi du Unai Arantzabal bergararrak denboraldi berria. Hasi moduan amaitzea, eta tartean ere maila onari eustea: erregularitasuna lortzea da Arantzabalen nahia. Aurreko denboraldietan lesioak izan ditu oztopo. Laugarren urtea du amateurretan, eta Gervais oroimenezkoa irabazi zuen bigarrenen. Postu onak bat baino gehiago ditu. Berriz ere Gervais, Valladolideko itzulia —iaz laugarren— eta Bidasoako itzulia ditu begiz jota.



Hilario Cordero
Bruesa

- > Arrasate, 21 urte.
- > Bigarren urtea Bruesan.
- > 19 urterekin hasi zen txirrindularitzan.

Txirrindulari berantiarra da Hilario Cordero arrasatearra. 19 urtera arte ez zen bizikletan lehiatu, eta amateur mailan korritu zituen aurreko lasterketak. Talderik gabe ibili zen lehenengo urtean, eta bigarrena du hau Bruesan. Iaz erorketa izan eta denbora asko egon zen bizikleta hartu ezinda; aurtengorako minik ez hartzea du helburuetako bat, beste bat Bidasoako Itzuli txukun bat egitea. Denboraldi hasieran, behintzat, sentazio onak omen ditu.



Kepa Otxoa
Bruesa

- > Arrasate, 19 urte.
- > Bigarren urtea amateur mailan.
- > Apirilean hasiko da, elurra urtzean.

Dagoeneko ari da bizikletarekin entrenatzen Kepa Otxoa arrasatearra. Lehian, ordea, ez da apirileraren artean duen kirol bakarra: urteak daromatza eskiko probetan parte hartzen, eta horiek amaitutakoan helduko dio bizikletari. Lehendakari lasterketetan ibiliko da. Ekainetik aurrerako probetan indartsu egon nahi du: Oñatikoa eta Bergarako ditu gogoko, eta nahi luke itzuliren batean ere maila ona ematea.



Kepa Varela
Cafe Baque

- > Bergara, 22 urte.
- > Iaz Alfus-Tedes taldean ibili zen.
- > Espainiako Kopa lehiatuko du.

Bost urte, bost talde. Horrela laburbildu daiteke Kepa Varela bergararraren ibilia amateur mailan. Debarrenan, TKVn, Bidelanen eta Alfusen ibili da, eta aurten Cafes Baquen dabil. Varela aurreko astean ekin zion denboraldiari, Espainiako Kopako egutegia jarraituko du-eta. Asteburuan Murtzian izan da, eta gustura bueltatu, ihesaldia hartuta, azkenean denbora galdu arren. Eibarko Balentziaga, Legazpiko lasterketa eta Nafarroako Itzulia ditu buruan.

KUTXA INBERTSIO-IRTENBIDEAK



ORAIN,
BURTSA
IGO NAHIZ
JAITSI,
ZUK BETI
IRABAZI.



Eusko Jaurlaritzak baimendutako publizitatea. 08/02/02 espediente zk.-duna.

Euroburtsa Gordailu

Berria

Kutxak gordailu berri bat dakarkizu, erabat bermatua eta oso errentagarritasun-aukera erakargarri hornitua, Burtsa igo nahiz jaitsi. Ez ibili dudu-mudan, zatoz **kutxara** eta galdetu **Euroburtsa Gordailu berriari** buruz. Aurrerantzean, buruhausterik izan ez dezazun Burtsaren gorabeherak direla eta ez direla.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

EZKERRA OIHUKATU!



eusko
alkartasuna

herriarenahotsa



euskoalkartasuna.org

PREFERENTEA > ALOÑA, KRISIALDIAN

Bi berdinketa baino ez azken bederatzia partiduetan Aloñak

ALOÑA MENDI

0-0

HONDARRIBIA

Aloña Mendi > Iñigo Idigoras, Xabi Elgarresta (Iker Aramendi, 79. minutuan), Jon Igartua, Roberto Idigoras, Mikel Palacios, Xabi Camino (Iñigo Arregi, 84. min.), Unai Arregi (Axier Ugarte, 67. min.), Xabi Carpintero, Mikel Sanchez, Jon Astigarraga eta Iker Olalde (Iñigo Zubia, 15. min.).

Hondarribia > Joanes, Gari, Balerdi (Alain, 71. min.), Martxel, Ugaitz, Tijero, Egoitz, Eneko, Castillo (Hodei, 66. min.), Endika (Iagoba, 71. min.) eta Xabi (Imanol, 81. min.).

Bestelakoak > Epaileak ez zuen arazorik izan. Txartel bakarra erakutsi zuen, Aloñako Jon Astigarragari. Ikusle dezente Azkoagainen. Giroak freskotu egin zuen bigarren zatian.



PRESIOA Irudian, Unai Arregi Aloñako kapitaina Hondarribiko jokalariez inguratuta.

JOSETXO ARANTZABAL

EDU MENDIBIL > OÑATI

Ezinean jarraitzen du Aloñak; atzo ere puntu bakar batekin konformatu behar izan zuten Josu Zubiaren mutilek. Husnako berdinketarekin amaitu zen Hondarribiaren aurkako partidua. Gol aukera gutxiko partidu eskasa eskaini zuten bi taldeek. Oñatiarren bolada txarra errekor negatiboa bilakatzeko bidean da; azken bederatzia partiduetan bi puntu besterik ez dituzte eskuratu.

Esan bezala, gol aukera gutxi izan ziren 90 minutuetan. Lehen zatian Roberto Idigorasek oñatiarren partetik eta Xabik kostalde-

koen partetik izan zituzten garbienak, baina markagailuan ez zen aldaketarik egon.

GOL AUKERARIK ONENA, ALOÑAK Jarraian, bigarren zatia hasi eta berehala, Idigorasek area barruan errematatu zuen baina Joanes Hondarribiko atezainak gelditu bikaina egin zion, baloia kornerrera desbideratuz. Hortik aurrera, bi taldeek erasora egin

zuten, hiru puntuen bila, baina arrisku gutxi sortuz. Zelai erdian jokariak pilatu ziren eta baloia gutxitan heltzen zitzairen aurrelari. 9 zentzua izan zuten bi jokariak ziren aurreratuenak: Hondarribiko Xabik eta Aloñako Josu Zubia. Xabik polita utzi zituen Azkoagainen berdegunean.

Aloñako Xabi Caminori dago kionez, berak izan zuen gola egiteko abagunerik onena. Bigarren

zatiko 36. minutuan, Roberto Idigorasen pase bikaina jaso eta gero, atezainaren aurrean bakar bakarrik geratu zen Camino, baina baloia gehiegi loratu zuen eta langa gainetik joan zitzaion errematea.

Josu Zubia entrenatzaileak Ekipo goratuau oihukatzen zion bere jokariei. Baina argi dago oñatiarrak ez daudela sasoirik onenean.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Ordizia	45	23
2. Real Union	44	23
3. Trintxerpe	42	23
4. Berio	42	23
5. Aretxabaleta	38	23
6. Aurrera de Ondarroa	37	23
7. Mondra	36	23
8. Hernani	32	23
9. Euskalduna	30	23
10. Hondarribia	29	23
11. Idiazabal	27	23
12. EHU Vasconia	26	23
13. Aloña Mendi	25	23
14. Anaitasuna	24	23
15. Eibartarrak	22	23
16. Zestoa	22	23
17. Touring	21	23
18. Zumaiako	20	23

Emaitzak

EHU Vasconia-Real Union	0-0
Aloña Mendi-Hondarribia	0-0
Zestoa-Berio	0-0
Idiazabal-Ordizia	0-2
Anaitasuna-Euskalduna	0-0
Eibartarrak-Aretxabaleta	1-1
Hernani-Aurrera de Ondarroa	1-3
Trintxerpe-Touring	2-1
Zumaiako-Mondra	2-3

Hurrengoak

EHU Vasconia- Zumaiako
Real Union-Aloña Mendi
Hondarribia-Zestoa
Berio-Idiazabal
Ordizia-Anaitasuna
Euskalduna-Eibartarrak
Aretxabaleta-Hernani
Aurrera Ondarroa-Trintxerpe
Touring-Mondra

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Lazkao-Bergara	2-1
Urola-Antzuola	5-0

FUTBOLA

Mondrak Zumaiako kolistari irabazi

A.G. > BERGARA

Lehen zatian partidua erabakita utzi zuen Mondrak zapatuan. Arrasatearrek 0-2 aurreratu ziren markagailuan Herizen bi golei esker eta etxekoek alde gutxitu arren, Muruak 1-3koa egin zuen atsedenaren aurretik.

ARRATEARRAK NAGUSI

Bigarren zatian arazorik gabe kontrolatu zuen Mondrak partidua. Zumaiako sailkapeneko azken tokian dago eta talde ahula dela erakutsi zuen zapatuan. Zumaiara joandako Mondrako zaleek euren taldearen garaipenarekin eta giro ederrarekin gozatu zute. Sailkapeneko zazpigarren tokian dira orain arrasatearrak.

FUTBOLA

UDAK puntu bakarra ekarri zuen Eibarretik

A.G. > BERGARA

Puntu bakar bat lortu zuen zapatuan Aretxabaletak, Eibartarrak taldeari egindako bisitan. Sailkapeneko 15. tokian egon arren, talde gogorra dela azaldu zuten eibartarrek.

Bigarren zatiko 20. minutuan aurreratu zuen UDA, Arriagak sartutako golarekin. Baina handik hamar minutura berdinketa lortu zuen etxeko taldeak, penalti eztabaidagarri baten bitartez.

UDAK AUKERA GARBIA HUTS EGIN

Azken minutuan partidua irabazteko zorian egon zen UDA, baina Rubenek ez zuen aukera aprobetxatu eta errematea kanpora joan zitzaion. Emaitza justutzat eman daiteke

ESKUBALOIA

Ford Mugarrik etxetik kanpo irabazi

A.G. > BERGARA

Euskadiko Txapelketaren barruan, Ford Mugarrik garrantzia handiko garaipena eskuratu zuen Seyce Escolapios taldearen kantxan. Gol bateko abantailarekin nagusitu ziren Beñardo Balerdiren mutilak, 27-28. Sailkapenean 10. tokian dira orain, eta zazpi puntuko alde ateratzen diote 11. tokian dagoen Gure Jorge Fernandez taldeari. Mailari eusteko urratsa garrantzitsua eman dute arrasatearrek.

BERGARA, EGOERA LARRIAN

Bergarak, berriz, 32-28 galdu zuen Urdulizen zapatuan. 12. tokian dira bergararrak; hurrengo jardunaldian bosgarren dagoen Romo hartuko dute etxean.

SASKIBALOIA

MUK Baskoniari irabazi Gasteizen

A.G. > BERGARA

Jarraian lortzen duen bederatzigarren garaipena eskuratu zuen MUK zapatuan, Gasteizen. Iñaki Merinoren mutilek 82-84 irabazi zioten Baskoniari, Judizmendin jokaturako partiduan.

EMOZIOA AMAIERARA ARTE

Hasieran, partidua nahiko parekatuta egon zen. Bi taldeek gogor jardun zuten garaipenaren bila, baina azken laurdenean arrasatearrek euren nagusitasuna erakutsi zuten: 11 puntuko alde lortu zuten. Hala ere, etxekoek ez zuten etsi eta azken minutuan aurretik ziren markagailuan, bi punturekin. Lau jaurtiketa libreri esker, MUK garaipena lortu zuen azken segundotan.

ERRUGBIA

Arrasatek Santanderri irabazi zion atzo

A.G. > BERGARA

Ez zuten ezer garrantzikorik jokoan atzo Santanderrek eta Arrasateko errugbi taldeak, baina Arkaitz Iburguenen taldeak amaiera ederra eman zion ligari, La Alberician jokaturako partiduan 29-34 irabazita. Laster hasiko den kopa txapelketari begira konfiantza emango die atzoko garaipenak arrasatearrei. Ligan laugarren postuan amaitu du Arrasatek. Atzokoa Aratus-teetan atzeratutako partidua zen.

INFANTILAK, BIKAIN IRUNEN

Bestalde, infantil mailako gazte txoek bi partidu jokatu zituzten atzo Irunen: Ordiziari 30-5 irabazi zioten eta Atletico San Sebastiani, 30-0. Harrobia badago.

Jaiotzez arrasatearra bada ere, txikitatik Aretxabaletako futbol taldean jokatu izan du Kerman

Azkarragak. Infantil mailan hasi eta preferente mailako taldera iritsi zen. Ondoren, Elgoibar tal-

dearekin fitxatu zuen. Aurten goa laugarren denboraldia du han. Era berean, amateur mai-

lako Euskadiko selekzioan jokatzen dabil. Azken partiduan kapitaina izan zen.

Kerman Azkarraga > Elgoibar futbol taldeko eta Euskadiko selekzioko jokalaria

"Asturias gaindituta, ea hautatzailea berriro nirekin akordatzeko den..."

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Asturias kanporatu ondoren, amateur mailako Euskadiko selekzioarekin Espainiako txapelketako azken faserako sailkatu da Kerman Azkarraga (27 urte). Aste Santuan berriro Euskadirekin jokatuko deia zain dago. Bien bitartean, Elgoibar taldearekin denboraldi txukuna egiten ari da defentsa arrasatearra. Sailkapenaren erdialdean dira elgoibartarrak; zapatuan 0-2 galdu zuten etxean, Durangoren aurka.

Nolatan jaso duzu Euskadiko selekzioarekin jokatuko deia?

Orain dela bi urte amateur mailako selekzioarekin entrenatzeko deia jaso nuen, baina azkenean ez nuen lortu taldean sartzerik. Oraingoan, berriz, abenduan, Zarautzen, Extremadura eta Gaztela-Mantxaren aurka jokatuko deitu zidaten eta Asturiasen aurkako kanporaketa ere jokatu dut. Asturias gaindituta, Espainiako Txapelketako azken fasea jokatuko dugu. Ziurrenik, Aste Santuan jokatuko dira partidua eta ea hautatzailea nirekin akordatzeko den... Horrelako aukerak aprobeztatu behar dira eta itxaropentsu nago.

Zer nolako aukerak ditu Euskadiko selekzioak?


Ez dakit. Asturiasen kontrako kanporaketa oso gogorra izan zen eta ikusteko dago Kataluniak edo Andaluziak zer nolako maila duten. Txapelketa bi urtetik behin jokatzen da eta azken bietan Euskadi izan da txapelduna. Gainera, orain dela lau urte, Europako txapelduna izan zen Euskadi, Polonian jokatutako txapelketa irabazita. Gauza handia litzateke European jokatutako txapela lortzea... baina ikusiko dugu.

Amateur mailako selekzioan, nortzuk ari zarete?

Hirugarren mailatik gora jokatu ez dugunok daukagu selekzioan jarduteko aukera. Edu Uriarte bizkaitarra da hautatzailea eta entrenamenduak normalean Barakaldon egiten ditugu, eguaztenetan. Jokalari gehienak bizkaitarrak direnez... Pixka bat astuna bada haraino joatea, baina taldean giro bikaina dago eta guztion konpromisoa erabatekoa da. Merezki du.

Zelan moldatu zara orain arte jokatutako partiduetan?

Orain arteko deialdietan sartu naiz eta alde horretatik pozik nago. Gainera, nahiko ondo ibi-



Kerman Azkarraga arrasatearra amateur mailako Euskadiko futbol selekzioan dihardu.

JOSETXO ARANTZABAL

EUSKADIREKIN

"Orain arteko deialdietan sartu naiz eta alde horretatik pozik nago. Gainera, nahiko ondo ibili gara"

li gara. Abenduan, husna berdindu genuen Extremaduraren aurka eta Gaztela-Mantxari 1-0 irabazi genion; Extremadurari irabaztea merezi izan genuen baina gol aukera mordoa galdu genituen Gaztela-Mantxari nahiko erraz irabazi genion, nahiz eta gol bakar bate-

OFIZIALTASUNA

"Ea guztion artean lortzen dugun selekzioen ofizialtasuna, urrats handia litzateke-eta"

ko abantailarekin izan. Baina taldeak maila ona azaldu zuen Zarautzen jokatutako bi partiduetan. Nahiz eta elkarrekin gutxitan jokatu, bloke bat osatzen dugula erakutsi dugu: hemen denok gaude gertu azken minutura arte gogor borrokatzeko.

ELGOIBAR

"Hirugarren mailan talde bizkaitarrak oso indartsak dira; gure lehen helburua 45 puntu lortzea da"

Asturiasen aurkako kanporaketan sufritzea tokatu zitzaizuen, ala?

Oso parekatua izan zen. Villaviciosan jokatutako partiduan bana berdindu genuen, azken minutuetan Iñaki Larrinagak areaz kanpotik egindako golari esker. Lehen zatian asturiarrak

izan ziren nagusi eta gu hobeto ibili ginen bigarrean. Itzulera-ko partidua, aldiz, lotsagarria izan zen; hasierako minutuetan sartu genuen partiduko gol bakarra, penaltiz, eta hortik aurrera asturiarrek protestaka jardun zuten partidu osoan. Epaileak Asturiaseko bost jokalarik kanporatu zituen eta bosgarrena kale-ratu ondoren, partidua bertan behera gelditu zen. Oso partidu nahasia izan zen, baina aurrera egitea lortu genuen eta txapelketako azken fasean izango gara.

Azken partiduan taldeko kapitaina izan zinen...

Bai, hala tokatu zen eta polita da, zalantzarik gabe. Sorpresa atsegina izan zen niretako.

Poz handia hartuko zenuke Euskadiren deia jasotzean, ala?

Bai, nahiz eta *lan extra* suposatzen duen, gauza handia da Euskadirekin jokatzea. Selektzioen ofizialtasuna? Guztiz beharrezkoa den eskubide bat da eta ez bakarrik futboleko, gainera kirolaren ere bai. Ea guztion artean lortzen dugun selekzioen ofizialtasuna, urrats handia litzateke-eta.

Elgoibar taldera etorri, sailkapenaren erdialdean zaudete...

Bai, aurre denboralditik gure lehenbiziko helburua da 45 puntu lortzea eta hori lortutakoan, ikusiko dugu. Momentuz nahiko ondo goaz eta ea lehenbailehen lortzen ditugun 45 puntu horiek.

Kategoria zaila da hirugarren maila?

Hemen ez dago aurrez partidurik irabazterik. Bizkaiko taldeak oso indartsuak dira: Gernika, Zalla, Zamudio, Portugalete... Gurea erdiko talde bat da, baina ez gaude ezer oparitzeko. Argi dago Bizkaiko taldeak askoz ere indartsuagoak direla, aurrekontu aldetik, zaleen kopurua aldetik... Bizkaia beste mundu bat da.

Datorren denboraldian, zer?

Auskalo. Hobe egunetik egunera joatea. Momentuz gustura nabil. Bat izan ezik, partidu guztiak jokatu ditut eta giro oso ona dugu taldean, oso elkartuta gaude, gauzak okertzen direnean ere bai. Agian pena bakarra zera da: Mintxetara jende gutxi etortzen dela...

ARRASATE

Zapatuko partiduekin amaitu dira minisaskibaloiko lehiak

ITURRIPEN Hirugarren eta laugarren mailetako neska-mutikoak ibili ziren baloia saskian sartu nahian

ANIMUAK HARMAILETATIK Guraso dezente batu zen kiroldegian euren txikiei laguntza emateko

AZKEN JARDUNALDIA Bosgarrena izan da oraingoa, eta aurrerantzean areto futboleant ibiliko dira

JULEN IRIONDO > ARRASATE

Kiroldegia bete ume. Halaxe zegoen Iturripen aurreko zapatuan ere, eskola kiroleko beste jardunaldi batez. Neska-mutiko ugari, eta baita nagusiak ere, harmailetatik haiei animuak ematen.

Benjamin mailako jokalariek –bederatzi eta hamar urtekoak– euren onena eman zuten, bakoitzak bere taldearen alde, partidua irabazten saiatzeko. Norberak ere saskiratzea lortzeko aukera ona eduki arren, agudo ikasten dute lagunarekin jokatzen. Oraindik garaieran falta dutena, ilusioz ordezkatzeko dute txikiak.

Eta harmailei buruz zer esan? Bada, talde federatuen arteko zenbait partidutan baino jende gehiago izaten da Iturripen eskola kirola jarraitzen, jokalariei animuak ematen; izan ere, bakoitzak bere txikia kirolean aurreneko pausuak egiten ikusteak ilusioa egiten die gurasoei ere.

KIROL ALDAKETA

Bost jardunaldi jokatu dituzte minisaskibaloian. Oraingoa izan da, hain justu, azkena. Datozen asteetan beste kirol batean ibiliko dira lehiak: areto futbolaren txanda izango da aurrerantzean.

Batzuek kirol batean moldatuko dira hobeto, besteak beste batean. Argi dagoena da, kirola edozein dela ere gauzak ahalik eta ondoen egiteko gogoarekin ateratzen direla denak kantxara. Gero, irabazi, batek baino ezin dezake egin. Baina emaitza ez da garrantzitsuena, hainbestetan errepikatzen den esaerak dioten bezala.



Arrasate Herri Eskola 3.D. Goian, ezkerretik: Ibai, Mikel, Jon, Endika eta Iraia. Behean: Ander, Gorka, Mikel, Liher eta Aitor.



San Viator 3.B. Goian, ezkerretik: Gaizka, Haritz M., Iker, Andoni eta Unai. Behean: Jone, Haritz U., Joseba eta Nerea.




Arrasate Herri Eskola 3.A/B. Goian, ezkerretik: Mikel, Anje, Aitor eta Ander. Behean: Odei, Aitor, Igor eta Unai.



Kurtzebarri Luis Ezeiza. Ezkerretik eskumara: Julen, Juanki, Asier, Aitor, Ibai eta Aitor, euren entrenatzaile Julenekin.

NAHIKO ZENUKE KIROLARI IZAN HANDITAN?




Jon Lizarraga
10 urte

Asko gustatuko litzaioke Joni handitan kirolari izatea, saskibaloio jokalariz zehazki. TAU da bere talde gogokoa, baina herriko taldea ere jarraitzen du. Ez du oso argi ze postutan jokatu nahiko lukeen; oraingoz, errebotean nagusitzeko moduko garaiera du.



Markel Moreno eta Beñat Iturriotz
9 urte

Hauk ere gustura izango lukete handitan kirola ogibide. Zapatuan gustura ikusi genituen saskibaloian jokatzen, baina Markelek eta Beñatek pilota dute nahiago. Eskola kirolean bai, baina bestela ere aritzen dira pilotan, Arrasateko taldearekin. Herritik kanpora ere jokatzen dute gainera, Oñatin, Urretxun edo Leintz Gatzagan, adibidez. Pilotari gogokoenak, Aimar eta Titin.



Mikel Gallacher
9 urte

Handitan kirolari izan nahiko luken galdetuta, Mikelek ere ez dio ezetzik. Saskibaloio jokalariz izan gurako luke, TAU Baskoniako Prigioni modukoa, adibidez. Argentina-rra da bere jokalariz gogokoa. Hutsik egin barik ikusten ditu gasteiztarren partidua telebista bidez.



**Hedabide
guztietarako
telefono berria
eta bakarra**

943 25 05 05



Goienkaria ASTELEHENKO **Goienkaria**



Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **ROCKA**
Green Manalishi
eta Jim TNT
Arrasateko 3.60
aretoan > 24



> **MUSIKA**
Oñatiko bertso
eskolakoak izan
ziren *Gutarrak*
egubakoitzean > 24



> **ANTZERKIA**
'¡Qué pelo más
guay!' antzezlan
Elgetako Espaloia
kafe antzokian > 24



> **KANTARI**
Bergarako
gaztetxoak
GOITBko 'Kantari'
saioan > 26

BIARRITZEKO BALLETA

Maitaleen oin jostariak

Amodio jolasak, sedukzioa eta pasioa ipini zituzten dantzan Biarritzeko Balletekoek. Dantzarien lilura eta dotorezia txalotu zuten ikusleek.

JON BEREZIBAR > ARRASATE
Maitasun eta maitemin-olgetek har ditzaketan itxura eta hamaika aurpegiak gaitzat hartuta, Thierry Malandainen hiru koreografia egin zituzten Biarritzeko Balleteko dantzariak, forma garaikideak eta dantza klasikoaren erroak uztartuta. *Mozart à 2* (Birentzako Mozart), *La Mort du Cygne* (Zisnearen heriotza) eta *Les Petits Riens* (Ezerkeriak) izan ziren,

hurrenez hurren, oholtzaratutakoak. Amaia Antzokia goraino, lehen ilarak neskatila gaztetxoek bete zituzten; zurrerik dantzariak eurak ere, eta lehen ilara horietatik azkeneraino adin guztietako ikusleek leporaino bete zuten Arrasateko aretoa. Txalo bero eta luzeekin agurtu zituzten dantzariak.

(24. orrialdean jarraitzen du)





MOZART Silvia Magalhaes eta Frédérik Deberdt bikoteak dantzatu zuen Vienako musikariaren piezetako bat. JOSETXO ARANTZABAL

Amorante-jolasak, eder eta jostari, dantzen inspirazio

(23. orrialdetik dator)

Mozartek pianorako idatzitako lau piezatan oinarritutako bikoteko dantzek osatu zuten ikuskizunaren lehen zatia. Giuseppe Chiavaro dantzaria arduratu zen ikusleak txunditzeaz lehenengo. Gainontzeko dantzarien dotoretasuna eta interpretazio bikainak gutxietsi barik, italiarrak izan zuen presentzia eszenikorik liluratzailena. Hark eta ostean ateratako Frédérik Deberdt eta Véronique Anierte, Mikel Irurtzun eta Jone Miren Agirre euskaldunek ere edertasun handiz interpretatu zituzten Malandainen sorkuntzak.

AMODIOA, JOLAS MODURA

Maitasun, amodio, amorante jolas eta sedukzio hutsaren plazerrak izan ziren koreografien gaiak; tarteka hunkigarri eta jostalariak, dotorezia eta fintasuna izan

ziren dantzari denon ezaugarriak. Hori, *Mozart à 2* lanari dagokionez. Ostean hiru neskek *La Mort du Cygne* dantzatu zuten bigarren zatiari ekin baino lehen. Programan ez zegoen iragarrita dantza hori eta ezustekoa izan zen.

Les Petits Riensen taularatzea koralagoa izan zen eta gehiago izan zuen amorante jolasez bikoteen arteko pasio dantzez baino. Koreografia arinagoekin eta umore printzekin ikusleei konplizitatea irabazita, ezin modu gozaga-

rriagoan amaitu zuten Biarritzeko Balletekoez ikuskizuna. Amaiera alaia izan zuen, herri-dantzei egindako keinu eta guzti. Azkenean, aurkeztutako hiru obretan maitasun min eta pozen arteko borrokatxo izan zen eta bigarrenak atera ziren garaila. Amodioa jolastea ere bada eta. Ikusitakoa gustukoa izan zenaren zalantzarik balego, dantzariak lausengatzeaz luze eta bero arduratu ziren Amaiako ikusleak, pozik ikusitakoaz.

BIRENTZAKO MOZART ETA LIMURKETAREN EZERKERIAK

Malandainen koreografia jostariak

Bitxia izan zen Malandainek nola aurkeztu zituen Mozartek pianorako lau piezaren gainean lau bikote-jolas desberdin. Lehena pasioz bete, bigarren oldarkor indartsu, hirugarren sentsualago bat eta laugarrena, jostaria, ia komikoa. Interpretazio lan bikaina egin zuten dantzariak, koreografia garaikideekin baina, kutsu guztiz klasiko, ia erromantikoaekin. Eszenografia oso soilarekin, argiztapena ere oso sotila, dantzariena izan zen oholta guztia. Jantziak ere elastikoetara mugatu ziren bigarren zatiko amaierara arte. Bepizkunde kutsuko arropaz jantzi ziren orduan dantzarietako batzuk, obra orduan hasiko balute bezala eta ikusitakoa jolas hutsa izan balitz moduan.



JOSETXO ARANTZABAL

Oñatiko bertso eskolakoak izan ziren Gutarrak egubakoitzean

Gu ta gutarrak izateko txanda oñatiarrei egokitu zitzaizen egubakoitzean. Horretaz arduratu ziren Unai Iturriaga eta Igor Elortza, musika eta bertso artean, eta txantxikuen enbaxadore lanak egin zituen Ruper Ordorikak. Ohi moduan, herritarrek gonbidatu zituzten oholta gainera bertsolariak eta Oñatiko kantariari tokatu zitzaion aurpegia ematea. Kasu honetan aurpegiak gain, gitarraz ere lagundu zituen. Jendez bete zen Gaztelekua bertso eskolaren 25. urteurrena ospatzeko.

ROCKA > GREEN MANALISHI ETA JIM TNT 3.60ARETOAN

Formula magikorik behar ez denean

Marmaiden ondorenetatik jaiotako taldeak bigarren lana aurkeztu zuen egubakoitzean

A.G. > ARRASATE

Formula magiko eta berritzaile ez zuten ekarri Green Manalishikoek. 70 hamarkadatik etengabe egin eta berregiten diharduen rocka da nafarrena baina taula gainean egiten dena komentzimenduz defendatu eta arima guztiarekin joz gero, ez dago aitzakiarik. Eta hori izan zen Green Manalishiren kasua. Joandako hamarka-

detako rocka eguneratu eta bizkarrean karriaten dituzten oholta gainera urteek bermatuta, zuzeneko haragitsu eta txukuna egin zuten bigarren diskoa aurkezteko. Mermaidengaraietatik dauka Txetxu Brainloster abeslariak beharrezko presentzia eta indarra ikusleen aurrean, eta sobera zaio horrekin. Oholtzakide eta giroa berotzen, Jim TNT bakarlaria igo zen lehenengo taula gainera. Oraingoan eserita, blues musikari zaharren moduan, bere abestiak jo zituen, ondo baino hobeto betetzen dakien ardura, hain zuzen. Mary May, Arrasateko bakarlaria gaztea ere jotzeko zen, baina kale egin zion ezarriak eta ezin izan zuen kontzertua egin, bertaritutako askoren penarako.



GREEN MANALISHI Mermaideko kide ohiek osatzen dute. JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

¡Qué pelo más guay!

Izen ezin bitxiagoa duen antzezlan bitxi batekin algarako amaitzeko aukera izan zuten egubakoitzean Elgetako Espaloia Kafe Antzokira gerturatu zirenek. Horren erantzule Santiago Molero eta Rulo Pardo antzezleak izan ziren. Umorea, inteligentzia eta, tarteka, absurdoa txertatuz, ondo pasatzeko aukera aparta izan zuten egubakoitzean.

www.euskoauto.toyota.es

PRIUS



Ingurumena zaintzea guztion kontua da

Toyotan, pozik gaude badakigulako auto fabrikatzaileak arduratuta daudela CO2 emisioengatik. Garrantzitsua da baita ere, arnasten dugun airearen kalitateaz arduratzea.

Toyota Prius autoak **Hybrid Sinergy Drive** teknologia dauka. Gasolina eta elektrizitatea konbinatzen duten motorrekin, CO2 emisioak eta airea kutsatzen duten beste substantzia batzuk gutxitzeko lan egiten dute.

Ziur gaude laster auto fabrikatzaileak neurriak hartuko ditugula etorkizun garbi baten alde.

Toyota Prius, matrikulazio zerga **ZERO** euro. Helburua: kutsadura maila **ZERO** izatea.

Konparatu Toyota Prius-en emisioak beste autoekin alderatuz www.idae.es/coches saila kontsumo gutxiagoko autoak



Toyota Prius 2008, 22.500 €'80-tik aurrera*

Toyota Prius 2008 probatzeko, gertuen duzun kontzesionariora joan maiztaren 31 baino lehenago.

EUSKADIKO TOYOTA ZENTRO OFIZIALEN SAREA



TODAY TOMORROW **TOYOTA**

**BERMEA
8 URTE**
Osagaietan, teknologia
hibridoan eta baterian



**Informazioa eta probatzeko
902 342 902**

EuskoAuto

Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI



Saioen emanaldiak GOITBn



NOIZ > Otsailaren 26an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Leire Rajado,
Miren Urrea, Olatz
Gabilondo eta Saioa
Unamuno
HERRIA > Bergara
URTEAK > 8 urte
ABESTIA > *Katuen testam-
entue*



NOIZ > Otsailaren 26an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Alazne Etxaba-
rri, Ane Loidi, Nerea
Aginagalde eta Oihana Lete
HERRIA > Bergara
URTEAK > 9 urte
ABESTIA > *Deabrutxo
maitea*



NOIZ > Otsailaren 26an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Elene Sasieta,
Miren Larrañaga, Nerea
Etxaniz eta Olatz Mateos
HERRIA > Bergara
URTEAK > 11 urte
ABESTIA > *Argi daukagu*



NOIZ > Otsailaren 26an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Ainhoa Irizar,
Andrea Baladron, Maider
Agirrezabal eta Nere Zurro
HERRIA > Bergara
URTEAK > 11 urte
ABESTIA > *Gautxori*



NOIZ > Otsailaren 26an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Alazne Lasku-
rain, Mireia Arana eta
Narrea Inza
HERRIA > Bergara
URTEAK > 10 urte
ABESTIA > *Aitormena*



NOIZ > Otsailaren 28an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Asier Muñoz,
Eider Armendariz, Nagore
Uribesalgo eta Olaia
Zalakain
HERRIA > Bergara
URTEAK > 8 urte
ABESTIA > *Iñaki*



NOIZ > Otsailaren 28an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Ainhoa Marda-
ras, Ainhoa Sainz, Jasmine
Forjan eta Nekane Ezkurra
HERRIA > Bergara
URTEAK > 12 urte
ABESTIA > *Argi daukagu*



NOIZ > Otsailaren 28an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Eider
Moncayola, Irati Lazpiur
eta Mariñe Diaz
HERRIA > Bergara
URTEAK > 9 urte
ABESTIA > *Nere herri*



NOIZ > Otsailaren 28an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Beñat Gonzalez,
Josu Rueda eta Yerkan
Tena
HERRIA > Bergara
URTEAK > 11 urte
ABESTIA > *Lau teilatu*



NOIZ > Otsailaren 28an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Ane Mujika,
Itsaso Gantxegi, Jone
Olabarria eta Lorena
Elexpuru
HERRIA > Bergara
URTEAK > 10 urte
ABESTIA > *Mezulari txikia*

ASTEBURUA...

Aitor Zabaletarekin



LAGUNARTEAN Ezkerretik eskumara, Aitor Garitaonandia, Aitor Zabaleta, Agustin Lazpiur eta Iñaki Aristi atzo, Zabaletaren tailerrean, Citroen 15 Liger (1954) autoaren ondoan.

JOSETXO ARANTZABAL

"Domeketan hainbat lagunekin elkartu eta auto zaharrak berritzen ditugu"

Zortzi urterekin ikasi zuen gidatzen, eta bere lehen autoa lagun batek oparitutako Seat 850a izan zen

Aste bukaeratan auto klasikoan erakustaldiak egiten ditu lagunekin herririk herri

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Autoak eta gasolina usaina dira Aitor Zabaletaren (Bergara, 1962) ikur nagusiak. Ez da erraza astean zehar eta aste bukaeratan egiten duena bitan banatzea: normalean, egun guztietan auto artean egoten da-eta. Zapatuetan eta domeketan autoa zaltasun moduan gidatzen du, eta gainontzeko egunetan, ofizio da. "Zortzi urterekin ikasi nuen autoa gidatzen. Bergarako okindegi batean nenbilen lanean eta hango maizterrak erakutsi zidan", gogoratu digu Aitor Zabaletak.

1 FORMULAKO AUTOA GIDATU NAHI

Astean zehar autoendako tailer batean egiten du lan; "egia esan, ez dakit beste ezer egiten: autoa da nire bizitza".

Aste bukaerak iristen direnean familiarekin plana egitea zaila izaten dela esan digu. "Nire emaztea autobus gidaria da, eta beti izaten du aste bukaeratan irteeraren bat. Hortaz, emaztearekin eta semearekin planak egiteko arazoak izaten ditut". Edozelan ere, aldika-aldika, bidaiaren bat egiten dutela azpimarratu digu.

Auto zalea izanik rallyak eta 1 formulako entrenamenduak ikusten egon da. "Duela aste batzuk Montmeloko zirkuituan egon nintzen entrenamenduak ikusten. Dena dela, karrerak nahiago ditut telebistaz ikusi", azaldu digu.

Ez du inoiz 1 formulako autoa gidatu, "baina gidatuko nuke, ikaragarria da halako auto batek hartzen duen abiadura".

Autoa alde batera utzi gabe, beste hainbat plan egiten ditu "nire moduko motor zale diren lagunekin". Aste bukaera guztietan, "batzuetan zapatuetan eta beste batzuetan domeketan", Aitor Zabaletaren tailerrean elkartzen dira lau lagun, eta auto zaharrak berritzen dituzte. "1920. urtetik 1950. urte arteko autoekin ibiltzen gara; auto klasikoak direla esan daiteke".

Gainera, auto klasikoekin herririk herri ibiltzen da erakustaldiak egiten. "Herririk herri auto klasikoekin erakustaldiak egiten ditugu. Halako hitz ordueetan hamabost bat lagun elkartzeko gara". Iaz antzerako erakustaldia egin zuten Oñatiko San Migel jaietan.

IGOERATAN, BARKETAK EZ

Autoendako mendi lasterketen denboraldia hasten denean, beste plan batzuk egiten ditu Aitor Zabaletak. Denboraldiko lehen lasterketa Gabirian jokatu da martxoaren 2an.

Aurten bada, Euskadiko Automobilismo Federazioak debekatu egin ditu barketak. "Ez dut ulertzen. Federazioak dio arriskuak direla eta debekatu egin ditu", esan digu haserre Zabaletak. "Era berean, debekatu arren, antolatzaileei aukera ematen diete barketak dituzten gidariak gonbidatzeko. Baina, kasu hauetan barketarekin ibiltzen garenok ez genuke Euskadiko txapelketarako punturik lortuko". Hala, Bergarako gidariak ez du erabaki zer egingo duen denboraldi berrian.

Hamabost auto apurtu ditu; haietatik 8 inguru, Simca 1000 markako autoak ziren

Zortzi urterekin gidatzen ikasi zuenetik hamabost auto apurtu ditu Aitor Zabaletak. "Ez ditut guztiak buruan baina 15 inguru izan dira. Haietatik 8 Simca 1000 markako autoak ziren. Edozelan ere, nire lehen autoa, lagun batek oparitutako Seat 850a izan zen". Tailerrean Simca 1000 bat duen arren, igoeratan parte hartzeko barketa erabiltzen du. "Auto ona da, baina garestia. Motorrak 300 kilometroko bizitza du. Hortaz, denboraldia bukatzerakoan aldatu egin behar dut". Lola BMW barketarekin kilometro asko egin ditu eta igoera bat aukeratzekoan, Gorlako igoera aukeratu luke. "Niretzat behintzat etxekoa da igoerarik politena. Gainera, halako proba batek izan behar dituen ezaugarria guztiak ditu", azaldu digu. Urte hauetako oroitzapen asko ditu, batzuk onak eta beste batzuk, txarrak. Zabaleta onekin geratzen da. "1995. urtean, Jaizkibelen Europako txapelketako proba irabazi nuen eguna ez dut sekula ahaztuko".

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Lankide boluntario gazteak.** Beasaingo Udala. GKEekin beharrik handiena duten herrialdeetan lankidetzak ekintzak egin ahal izateko diru-laguntza. Epea: apirilaren 27a.

> **Ingurumena.** Azkoitiko Udala. Ingurumenaren zerikusia duten entitate eta irabazi asmorik gabeko elkar-teei diru laguntzak emateko deialdia. Epea: Otsailaren 28a.

EKINTZAK

> **Ibilaldiak.** Zientziaren Kutxagunea: Informazioa eta erreserbetarako tfnoa: 943 012917. Epea: irailaren 24a.

> **Gaztemaniak. Kontzertua.** Thunder Express & Sarris Rock & Roll trio. Otsailaren 28an, Gazteszenan (Donostian), 21:00etan.

> **19. Lilatona Donostian.** Bost kilometroko lasterketa herrikoia emakumeentzat martxoaren 2an, 11:00etan. Izen-ematea: martxoaren 1era arte.

LEHIAKETAK

> **Begibistan 08.** Amurrioko Udala. Film Laburren lehiaketa. Epea: martxoaren 14a.

> **Manga.** Motsukora Elkartea. Komiki Manga eta Maskota Mangaren lehiaketa. Epea: martxoak 25.

> **Pop-rock.** Leioako Udalaren VIII. Pop-Rock lehiaketa. Epea: martxoaren 14a.

LANA

> **Kazetaria.** Ttakun Kultur Elkartea. Lasarte-Oriako Txintxarri aldizkarian lan egiteko. Epea: Otsailaren 29a.

> **Euskaltegiko irakasle.** Arrasateko Udala. Udal Euskaltegiko irakasleen lan-poltsa osatzea. Epea: Otsailaren 29a.

> **Begiraleak.** Mondragon Lingua. Begiraleak behar dira Euskal Herriko zenbait lekutan 7-14 urteko haurrentzat uztailean antolatzen dituen ingeleseko udalekuetarako. Epea: otsailaren 27a.

> **Errenta teknikaria.** Bergarako Udala. Aldi baterako errenta teknikari bat, lan jardun erdiz, oposizio bidez kontratatuzko prozesua. 4. hizkuntza-eskakizuna izatea eskatzen da. Epea: otsailaren 27a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzu@euskalnet.net

ONATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazio@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Erdigunean teitatupeko 72 metro koadroko etxebizitza salgai. Jantzita. 16 metro koadroko garajea. Prezio interesgarria. 659 64 67 38.

Arrasate. Etxebizitza salgai Ferixalekuan. Hiru logela, egongela, sukalde eta bainugelajantziak, gas naturaleko berogailua, berri-tutako leiho eta ateak, igogailuarekin. Erdijantzia eta egurrezko lurrairekin. 943 77 05 49.

Arrasate. Maalako Errabalean 72 metro koadroko etxebizitza eta 30 metro koadroko lokal komertziala salgai. 628 35 21 61.

Arrasate. San Andres auzoan etxebizitza salgai. 58 metro koadro. Bilogela, egongela, sukalde, komuna eta trastelekua. Berritua. 210.350 euro. 943 27 71 50.

Bergara. San Lorenzo kalean 70 m²-ko etxebizitza salgai. Berritua eta jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. 943 53 22 19.

Bergara. Zabaltegin etxea salgai. Hiru gela, egongela, sukalde eta bainugela. 665 75 52 11.

Bergara. Zubiaurren guztiz berritutako etxebizitza salgai. Berogailu eta ganbararekin. 619 41 39 72.

Borda daukat salgai Elgetan. 2.200 metro koadroko lursailarekin. 678 98 02 04.

Eskoriatza. Etxebizitza salgai Dorleta auzoan. 82 metro koadro. Lau logela, sukalde, jangela, bainugela eta lehortegia ditu.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com
http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 30 EURO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

BERGARA

Zerbitzari euskalduna behar da.

943 76 70 11

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta edo Arrasaten logela bila nabil hilabete batzuetarako, lan kontuak direla eta. 30 urteko neska bilbotarra naiz. 696 44 07 22.

Arrasate. Pertsona arduratsuekin batera logela hartuko nuke errentan. 665 66 49 75.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 665 75 52 11.

Bergara. Hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. 680 67 74 96.

Bergara. Lau helduk osatutako familia batek etxebizitza hartuko luke errentan. 634 40 75 52.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. 17 metro koadroko garaje itxia salgai Mitarte auzoan. 661 80 00 32.

Bergara. 37 m² garaje salgai Zubiaurren. 606 65 97 82.

Oñati. 17 m² garaje itxia salgai Olakua auzoan. 943 08 18 13 edo 677 42 57 94.

202. EROSI

Debagoiena. Autokarabana sartzeko garajea. 605 71 10 95.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje itxia dau-

BERGARA

Estetizista behar da esperientziarekin.

Deitu 12:00etatik 16:00ak arte edo 19:00etatik 21:00ak arte.
669 00 38 43

kat alokagari Andra Mari auzoan. 943 76 29 21.

Oñati. Bidebarrietan garajea alokagari. 695 75 85 26.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. 80 m² lokala ematen dit errentan. Berrituta. 450 euro hilero. 645 00 80 55.

304. ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Taberna edo jate-txea hartuko nuke errentan. 665 75 52 11.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 696 79 43 89.

402. ESKAERAK

Arrasate. Ordutua lan egiteko nuke garbiketa lanak egiten, sukaldean laguntzen edo ostalaritzan. Esperientzia. 656 66 49 75.

Debagoiena. Mutila zerbitzari edo sukaldari laguntzaile lana egiteko; oro har ostalaritzan lan egiteko. 629 23 93 87.

DEBAGOIENA

DCA Company zerbitzu informatikoak eskaintzen dituen enpresak lan poltsa osatzeko honako hau behar du:

INFORMATIKA TEKNIKARIA

Windows zerbitzarietan eta telekomunikazioan esperientzia baloratuko da.

Interesatuok bidali curriculumua honako helbide honetara martxoak 7a baino lehen.

DCA Company
Basabe poligonoa C-2
20.550 Aretxabaleta
E-posta: info@dcacompany.com



Technocar-ek Arrasateko ordezkarietarako auto mekanikaria behar du.

ESKATZEN DA

- 3. mailako ofizial lanetan ezagutza
- Urtebeteko esperientziadun gaztea
- B auto-gidabaimena eta inguruan bizi izatea

ESKAITZEN DA

- Enpresa finko batean berehala barneratzea.
- Soldata finkoa eta helburuen araberako gainsaria.
- Prestakuntza enpresaren kontura joango da.

Interesatuok bidali curriculumua helbide honetara:

625 posta-kutxa Donostia
Erref.: Mekanikoa

Eskiatzeko botak salgai, 41-42 zenbakikoak. Behin erabiliak. 90 euro. Eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu. 669 83 60 53.

Keroseno zoko berogailu handia salduko nuke prezio onean. Deitu 629 00 60 04 telefonora.

Olympus E-410 argazki-kamera digitala. ED 14-42 mm eta 40-150 mm-ko objektiboekin. Erabili gabe dago. 650 euro. 660 80 09 71.

Orbea Arin bizikleta salgai. 2005eko. Euskaltel-Euskaditaldearen erreplika. Dura-Ace osagarriak. 1.700 euro. 656 76 89 44.

Pefiscola. Bungalowa salgai. Hondartzatik 100 metrora. Logela, sukalde, jangela, bainugela, terraza handia eta lorategia ditu. Kirolgunea txirristekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

804. HARTU

Botatzeko dauden ordenagailuak, monitoriak eta jasoko nituzke. 605 71 71 62.

806. GALDU

Arrasate. Belarritakoa galdu nuen, otsailaren 1ean, parrokiako irteeran. Perla borobila dauka. 669 52 69 62.

Oñati. Otsailaren 9an, domekan, txaketa bat galdu nuen, urdin iluna, Benetton etxekoa, 4 urteko mutikoarena, Erremerterri plazan. Aurkitu baduzu, udaltzainei eman edo Maibi dendan utzi, mesedez. Deitu 646 95 80 62 edo 943 78 14 80 telefono zenbakietara.

807. AURKITU

Forro polarra aurkitu nuen otsailaren 9an. EHSF markakoa da, umeena. BAZen utzi nuen. Deitu bertara. 943 25 20 00.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

39 urteko mutilak adin berdintsua duen neska ezagutu nahiko luke lagunarteko erlazioa izateko, eta aurrerago erlazio egonkorragorako. Deitu 943 79 02 37 zenbakira.

Otsailak 25:
163. zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 25, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! ASTELEHENEN GOIENKARIAko harpidedun bazara, adi:

Zeuren izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

Saridunak

ELGETAKO ESPALOA KAFE ANTZOKIAN Fadoak ikusteko lau sarrera (irabazle bakoitzari bi).
- Iñaki Larrañaga (Bergara)
- Esteban Llodio Ganboa (Arrasate)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

164. zozketako saria

Euskal selekzioko bi txubaskero eta bi kamiseta

Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

38 euro
2008ko urteko kuota

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 25



> **Udal euskaltegien lana erreportajea**
21:47

Udal euskaltegien lan egiteko modua izango duzue ikusgai gaurko erreportajea. Arrasateko Udal Euskaltegia hartu du eredu Iriondok.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea: Ttipi Ttapa.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Ilunpean
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Erreportajea.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ikusmira.
- 18:15 Ikusten.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Gertutik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmaillatik.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea.
- 22:15 Kirolari.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Harmaillatik.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 28 Klipa.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 26



> **'Kantari'-ko azken saioak ikusgai**
20:15

Kantari ikuski-zuneko azken taldeen saioak ikusiko dituzue asteotan. Martitzenean eskainiko dute azken aurrena eta eguean azkena.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Horry.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Harmaillatik.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Gertutik.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Kirolari.
- 16:15 Eltze beroa
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Horry.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 28 Klipa .
- 18:15 Musikantoi.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak: Horry.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Kantari
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Berbaire
- 22:15 Animaliak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusmira.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Erreportajea.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 27



> **'Zaharrak berri' saioa eskainiko dute gaur**
20:15

Astero moduan Zaharrak berri saioan izango dituzue ikusgai erreportajea, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistaren aholkuak eta abar.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Kantari.
- 14:15 Eltze berioa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Berbaire.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Animaliak.
- 16:15 Teknopolis.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Gertutik.
- 18:15 Harmaillatik.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Zaharrak berri .
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Ikusten.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Euskal Artzainak Ameriketan.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Teknopolis.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Jazmina.
- 00:15 Emisio amaiera

Eguena, 28



> **'Musikantoi' saioa, Lor taldearen gainean**
22:15

Musikantoi saioa, Elorrioko Lor talde arrakastatsua-ren gainekoa izango da. Taldearen diskografiaren erreportajea egingo du Maider Arregik.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zaharrak berri.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Marazki bizidunak.
- 14:15 Euskal artzainak ameriketn.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Berbaire.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Animalia.
- 16:17 Teknopolis.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Horry.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Gertutik.
- 18:15 Harmaillatik.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazkiak.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Kantari.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Berbaire.
- 22:15 Musikantoi.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusten.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Ilunpean.
- 00:15 Emisio amaiera

Egubakoitza, 29



> **Tasio Erkizia elkarrizketatuko dute gaur**
22:15

Besteak beste, Herri Batasunako mahai nazionalako kidea eta Bilboko Santutxu auzoko gau eskolen eta Ikastolaren bultzatzailea izan da Erkizia.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Kantari.
- 14:15 Animaliak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Berbaire.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Eltze beroa.
- 16:15 Musikantoi.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Euskal artzainak ameriketn.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Ikusmira .
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Gertutik.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> **'Teknoberriak' saioa oraingo asteen Irratian**
10:30

Teknoberriak saioa eskainiko dute datorren asteen Arrasate Irratian. Saio honetan, Interneteko mugimendu eta gora beherak aztertuko dituzte. Horren guztiaren berri emango digu Imanol Soriano lankideak.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
Eguraldi kontuak Joxe Landarekin eskutik; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) Zaharrak berri saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearren erreportajea
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko deitu: 943 25 05 05 telefonora edo irratia@goiena.com)
11:55 Arrasateko albisteak, labor.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

gertutik



Iñaki Leturia
Kazetaria

"Saioaren prozesu guztia kontrolatzea dut gustuko"

MIREN ARREGI > BERGARA

Iñaki Leturia ormaiztegiarra da. Leioako unibertsitatean hasi zituen kazetari-tza ikasketak eta Iruñean amaitu zituen. Ondoren Madrilera joan zen eta produkzio, errealizazio eta edizio ikastaroak egin zituen, lanean hasi aurretik bere burua ongi prestatu asmoz. *Egunkariako* lehenengo bekadunetako bat izan zela dio harrotasun puntu batekin. Gerora telebista munduan aurkitu du Leturiak tokia; lehenengo ETBko Bertatik bertara saioan ikusi genuen, eta egun Goierri Telebistako aurpegi ezaguna da.

Zertan lagundu dizu telebistak?

Aktore askok esaten dute lotsatiak direla eta telebistak lotsa hori gainditzeko laguntzen diela. Niri ere hala-ko zerbait gertatzen zait. Lotsati patologikoa naiz eta telebistak lagundu dit nire mugak gainditzeko. Lotsa beti pasatzen da. Batzuk jario egiten dira lotsa gabe eta nik ikasi egin dut lotsa hori gainditzeko.

Tokiko komunikabideek besteek ez duten xarma dutela esango zenuke?

Bai, jendearekiko gertutasuna handiagoa da, eta lan egiteko modua ere desberdina da. Nik Goierri Telebistan deskubritu dut kamara hartzea eta irudiak grabatzea zer den, Euskal Telebistan egin ez nuena adibidez, eta egia esan ikaragarri gustatzen zait nik neuk aukeratzea planoak, errealizazioa egitea, nik markatzea kontaktuzunaren erritmoa, azken finean prozesu guztia kontrolatzea. Aukera horiek guztiak tokiko komunikabideek eskaintzen dizkizute eta estimatzen da.

Animalien gaineko saioak, erreportajeak, tertulia saioak ekoizten dituzu...

Tertuliak baino, egia esan, nahiago dut beste arlo bateko lanak egitea. Bertatik bertara saioan nengoenen gustura egiten nituen euskal mundua erakusten zuten erreportajeak; base-ri giro jatorra, helduen esperientziak entzutea... Baina jendeari atenezioa emango dioten gaiak lantzea gustatzen zait. Orain ur bilatzaile baten atzetik nabil erreportaje bat egiteko. Naturarekin lotura duten gaiak dira gustatzen zaizkidanak. Onddoak, ehiza, arrantza, naturako txoko ezkutuak... egingo ditut egunen batean.

asteko hitzorduak

Kontzertua



ARETXABALETA

> **Musika Eskolako txistu eta txirulajoleek emanaldia egingo dute**

Aretxabaletak Leizarra Musika Eskolako txistu eta txirula ikasleek musika emanaldia egingo dute bihar, martitzena, Iralabarri kaleko gaztelekuan. Arratsaldeko zazpitan hasiko da kontzertua.

Erakusketa



BERGARA

> **Diego Osuna bergararraren margo erakusketa dago kultura etxean**

Diego Osuna bergararrak hainbat margolan jarri ditu erakusketan Bergarako kultura etxean, eta martxoaren 8ra arte dago ikusteko aukera, astegunetan, 18:00-21:00, eta zapatuetan, 12:00-14:00.

Kontzertua



BERGARA

> **Dreamscape, Symphony X eta Circus Maximus taldeek joko dute Jamen**

Jam aretoan Michael Romeoren Symphony X taldeak joko du egunean, Paradise lost diskoa aurkezten. Metal progresibo estiloa egiten dute. Dreamscape eta Circus Maximus-ek ere joko dute. 19:00etan irekiko dituzte ateak.

kuxkuxeroa



Jon Berezibar

Musika ere zainduko balute, bikain

LAN kontuengatik (ikus 23. orria) balletera joatea legokitu zitzaidan zapatuan. Ikuskizun liluragarria eta Amaia antzokia goraino betetzea lortu zuten Biarritzeko Balletekoen. Adin guztietako ikusleak egon ziren, baina adin ertaineko emakume painelu eta permanentedunak txapeldun. Neskatila ugari zegoen lehen ilaretan. Ziurrenik balleteko ikasleak izango ziren, dantzarien urrats bati ere ez zioten-eta begirik kendu. Handik txundituta atera eta kalera.

'Nafarroa Oinez 82' segituko du izaten tabernetako soinu bandak; interesik ez daukagu musikan

Zapatuan, kafe orduan, Nafarroa Oinez 82ko abestia eta top-kalimotxoko betiko bost hit turutero-tronpeteroak izan nituen soinu banda modua. Kafea ondo zegoen. Gustuak gustu dira eta ez naiz ni izango irizpideak ezarriko dituen, baina zenbait tabernatan musika kontuetan daukaten utzikeria negar egitekoa izatera iritsi da. Mozarten piano piezak baino berriagoak dira entzundako abesti horiek baina daukaten usain zaharmindua askoz sarkorragoa da. Inguruetako musika aretoetako ardura-dunek sarri esaten dute gero eta jende gutxiago joaten dela kontzertuetara. Interesik ez ei dago musikan. Behintzat zapatuan musikaren bolumena ez zen gortzekoa, ohi moduan, eta kafea eta konpainia ona zen.

hildakoak

• Manuel Fernandez Suarez

Aretxabaleta, otsailaren 15an. 79 urte.

• Gregorio Azkarraga-Urizar Zarraoa

Bergara, otsailaren 22an. 76 urte.

• Felix Amozarrain Abarrategi

Arrasate, otsailaren 23an. 69 urte.

• Roque Martinez Peña

Bergara, otsailaren 24an. 80 urte.

asteburuko albuma

Txatxilipurdi. Egubakoitz arratsaldean, eurek esan moduan, 'sekulako merixenda' egin zuten Txatxilipurdikoen. 70 lagun elkartu ziren gutxi gorabehera Pablo Urangako lokaletan. Askarira Txatxilipurdik Gabonetan antolatzen duen Txikilandia jolasparkean parte hartu zuten neska mutikokak gonbidatu zituzten. Hain zuzen, neska-mutiko horiek judo, sevilana dantzak, euskal dantzak, karate, batuka eta karaokeko haur taldeak dira eta arratsaldero egon ziren Txikilandian euren saioak egiten. Horregatik, emandako laguntza eta parte hartzeagatik, askari bikain batekin eskertu gura izan dituzte Txatxilipurdikoen.



'Harutze ta honutze, Mondraguen'. AEDk herriko historia eta bilakaera hobeto ezagutzeko antolatzen ditu ibilaldiak eta zapatuan bigarren saioa izan zen. 30 bat lagun elkartu ziren goizeko saioan. Industrializazioa aztertu zuten eta gidari izan zuten Isabel Aramendia. Burdinolak non zeuden eta Zerrajeraren historia azaldu zuten historialariak.

Sagardotegira irteera. Zahar Berrikoen ere ez dute kale egin sagardotegi denboraldian. Joan zen egubakoitzean Azpeitiko Añõta sagardotegian izan ziren, giro ederrean. Haiekin batera AEKko zein Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleak eta Bergarako Berriketaren eta Udal Euskaltegikoak joan ziren. Zin egin beharrik ez daukate ederto pasatu eta bapote jan zein edan zutela. Dantza eta bertsoak ez zela falta izan kontatu dute eta, hara non, Sebastian Lizaso bertsolari ezagunarekin egin zuten topo. Bergarako trikitilariak ere eroan zituzten sagardotegira. Aitzakia gutxi izan zuten, hortaz, ondo baino hobeto pasatzeko.



PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxumutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
astelheena@goiena.com

Helduentzako ipuinak. Miren Camison ipuin kontalariak istorio magiko, erotiko eta tragikoak kontatu zituen eguenean Bergarako Aroztegi aretoan. Bertaratutako helduentzako ipuin interesgarriekin gozatzeko aukera izan zuten. Munduko istorio motzak kontatu zituen, emankortasunaren gainekoak.

zorion agurrak



OÑATI
Jone Iturraspe
Otsailaren 18an, 10 urte. Zorionak potxola, eta patxo handi bat! Agirre-Bikuña familien eta bereziki Uxuen partetik.



BERGARA
Elaia Maure eta Julen Osinaga Maure
Otsailaren 19an Elaiak 2 urte, Otsailaren 22an julenek 6 urte. A ze zorgintxo pareak! Zorionak bioi etxe-koen partetik.



BERGARA
Xabier Alberdi
Otsailaren 19an 6 urte. Zorionak familiarikoen partetik.



BERGARA
Ane Laskurain
Otsailaren 20an 9 urte. Zorionak eta urte askotarako gurasuen eta bereziki Markelen partetik.



ARRASATE
Ekain Zugasti
Otsailaren 20an. Zorionak mutikote! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!! Patxo handi bat etxeko guztion partez eta ondo-ondo pasau!



ARRASATE
Edurne Elgoro eta Eder Luengo
Otsailaren 21ean Eiderrek eta otsailaren 23an Edurnek. Zorionak eta patxo handi bat familiaren partetik.



ELGETA
Iban Arantzabal
Otsailaren 21ean, 33 urte. Zorionak Goienako lankideen partetik eta ondo-ondo pasa eguna!



BERGARA
Eider Moncayola Goiti
Otsailaren 21ean. Zelako txollua urtiak betetzia. Guk be holako oparixak nahi diittugu. Ondo ibili. Patxo handi bat familixian partetik.



ESKORIATZA
Nagore Gruceta
Otsailaren 22an, 8 urte. Zorionak etxeko guztien partetik. Patxo handi bat.




ESKORIATZA
Lide Crespo Zuatzua
Otsailaren 23an, 8 urte. Zorionak artista, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Miren Aranburu eta Itziar Zelaia
Otsailaren 23an. Zorionak bikote! Primeran pasau zuen urtebetetze egunian! Ta juerga on batekin borobilddu! Zuen kuadrillian partetik!



OÑATI
Agurtzane Mujika
Otsailaren 24an. Zorionak eta urte askotarako wapixima! Ondo-ondo ospatu ta egong gatxin. Zure lagunak.



ARETXABALETA
Aimar Diez Castro
Otsailaren 24an, urtebete. Zorionak eta patxo handi bat. Gurasoak, Maialen, bizilagunak eta lagunak. Aupa Errioxa!



OÑATI
Kepa Luarizaristi
Otsailaren 24an. Zorionak! Ta patxo handi bat zure kuadrillako lagun partetik.



ARRASATE
Mikel Lagunilla Amozarrain
Otsailaren 25ean urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi-handi bat, Txomin, Aitzol, Oxel eta Oskitxen partetik.




ARETXABALETA
Aner Zugasti Herrera
Otsailaren 25an, 2 urte. Zorionak Nagore, Oier, Jokin, June eta Malenen partetik. Ondo-ondo pasa zure urtebetetzean.



ARETXABALETA
Iñigo Arkauz Uribesalgo
Otsailaren 27an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! Patxo pila bat etxe-koen partetik.



BERGARA
Mikel Edroso
Otsailaren 28an, 11 urte. Zorionak familiarien partetik, bereziki Maria.



BERGARA
Maddi Elortza Agirregabiria
Otsailaren 29an, 12 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Amaia partetik.



ARRASATE
Luken Ugarteburu
Martxoaren 2an, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi bat familiarikoen partetik!



Naroa Morras Morales
Aretxabaleta > 3,500 kilo. Otsailaren 20an. Gurasoak: Virginia (Aretxabaleta) eta Mikel (Arrasate). Argazkian, Naroa jaioberria gurasoekin.



Ainhoa Zubillaga Garcia
Aretxabaleta > 3,240 kilo. Otsailaren 22an. Gurasoak: Celia (Aretxabaleta) eta Koldo (Aretxabaleta). Argazkian: Umea Xabier, Leire eta Maria anai-arrebekin.



Ainhize Saez de Biteri Makazaga
Arrasate > 3,300 kilo. Otsailaren 24an. Gurasoak: Jaione (Leintz Gatzaga) eta Imanol (Andoain). Argazkian, Ainhize jaioberria, kunan lo.



Joane Blazquez Dominguez
Aretxabaleta > 3,290 kilo. Otsailaren 20an. Gurasoak: Victor (Aretxabaleta) eta Mari (Aretxabaleta). Argazkian, Oier jaioberria, aitarekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederra!

Xabier Silveira > Bertsolaria

"Bertsolariak zerbait izatekotan, masokistak"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Xabier Silveira lesakarrak Nafarroako Bertsolari Txapelketako bost txapela jantzi ditu, eta herriz herri ibiltzen da kantuan. Musika taldeetan ere ibilia izan da, eta Gara-n zein Argia-n idatzi zirikatzaileak egiten ditu. Negu honetan kale borrokan gaineko *A las ocho en el bule* liburua argitaratu du.

Buruz ikasi zenituen amaren osaba zaharrak gordetako bertsoen kaseteak?

Bai. Askotan abesten genituen anaia Jonik eta biok. Oso gaztetxoak ginen, baina hor hasi zen gure bertso zaletasuna. Anaiak Bortziriko txapelketan bakarrik abesten du. Esan ohi du bertsoak asko gustatzen zaizkiola jende aurrean bertsoan bakarrik aritzeko; eta ez du bere burua guk bizi dugun lehiakortasunean ikusten. Anaia nire bertso ibilbidean ezinbestekoa da.

Egia da aita Portugalen bertsoan aritzen zela?

Bai. Gure etxean denek dakite bertsoan. Nire aitaren aita Oporto inguruan bertsolari eza-

guna egin zen, batez ere hil eta gero. Dagoeneko bizpahiru liburu atera dituzte bere bertsoekin.

Gaztetxotan Euskal Herriko Eskolarteko Bertso Txapelketa irabazi zenuen. Zer aurpegi jarri zuten irakasleek?

Ordurako ni eskolatik kanporatuta nengoen, eta nire benetako irakasleak tabernariak edo tabernetan zeudenak ziren. Haiak asko poztu ziren, hori badakit. Eskolako irakasleek, berriz, zer pentsatuko zuten? Auskalo, baina bejondeiela.

TEST-A

Herria: Lesaka. **Adina:** 31 urte. **Ikasketak:** Oinarriko ikasketak eta modulu batzuk egin izan ditut. **Zaletasunak:** Bertsoak eta parranda. **Zer amets bete duzu?** Txikitari izan nahi nuena naizela. **Eta zer amets daukazu betetzeko?** Txikitari nintzena izatea. **Bertsolari bat?** Txiritari esan ohi dut beti, baina azkeneko aurkikuntza Laxarte izan da, eta nafarra da gainera. **Musika talde bat aukeratzekotan?** El Corazón del Sapo.

Bertsolaritza odolean eraman da edo ikasi egiten da?

Garai baten Eibarren esaten zuten "heavyxa odolien erueten da", eta nik uste dut bertsolari jaio egin behar dela, nahiz eta gero ikas daitekeen. Gaur egun ere bi bertsolari mota ikusten ditut.

Kurpil tabernako familiako esperientzia nahikoa ez eta luzaroan Saskizahar tabernaren ardura izan zenuen...

Bai, gogaituta baino gehiago, nazkatuta bukatu behar nuen, baina... Agian hori bertsolari izatearen barruan dator, masokista izatearena.

Masokista?

Bai, bertsolariak zerbait bagara hori da. Bertso on asko botatzen hasteko txar asko bota behar ditugu aurretik.

Heriotzari beldur diozu? Eta poliziari?

Behin bertsoan erantzun nuen ea Guardia Zibilari beldur nion. Poliziak sufriarazi egiten zaitu, eta horregatik heriotzari baino beldur handiagoa diot.



SILVEIRA Bertsolari nafarra autobusari stop egiten.

IKER BARANDIARAN

ai, ene!



Bizikletako eskulekuan musika

Musikak lagunduta edonora joateko zaletasuna daukate nek badaukate *gadget* berria. *Bike Stereo Speaker* honekin bizikletarekin zoazen leku guztietan entzun ahalko dituzu zure abesti gogokoak. <http://www.impresionante.net>

biharamuna

Juan Kruz Mendizabal


Herriaren alde

Aurreko ASTELEHENEKO GOIENKARIAN Tasio Erkizia irakasleari eginiko elkarrizketa irakurri nuen eta berak esandako haritik hartu nahi dut gaurko zutabetxo. Bertan esaten du apaizgoa uztea erabaki zuela konturatu zelako "hobe zela herriaren alde egitea, Elizaren alde baino". Orain 38 urte hartutako erabaki aske hura harturik ez dakit berak jarritako parekotasun hori zuzena den. Hala, bere ustez, herriaren alde eta Elizaren alde lan egitea aurka daude. Beraz, Elizaren alde lan egiten duenak herriaren kontra egiten du. Hauze da behin eta berriro azaletik egiten dugun Elizaren aurka-kritika erraza. Eliza beti izan omen da herriraren zapaltzailea, herriaren



askatasun eta izatearen gogoak lokarazten dituen. Eliza, herriaren opioa, Feuberbach'en esanetan. Egia izan da neurri batean eta egia da historian zehar Elizak boterearen babes bilatu duela antsika eta erailtzen dituzten bonbak isipuz bedeinkatu dituela. Egia da. Baina egia ere da, eta borobila, Afrikako herrien alde beren bizi eman duten misiolarien bizitza eredu garria dela, isilean lanean ari diren eliztarren ekintzak eta egun-egun laguntza ematen duten parrokiaren herri lana hor dagoela begi bistan. Baina hori ez da herriaren alde lan egitea. Hala ez bada, zer da orduan? Nik argi daukat: eliztar naizela nabil herrian lanean, bergarar egin naizelako nago hemen eliztar.

eguraldia



MAXIMOA

+11

MINIMOA

+08

Temperaturek berdintsu jarraituko dute, atzo moduan eta arratsalderako lainoak saretzen joango dira. Bustitzekotan, gutxi.

www.euskalmet.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abestaria) | **KODEA**

<p>Pop-Rock</p> <p>Aitormena (Hertzainak) AITORMENA Aizkolari (Kortatu) AIZKO Amore amore (Karidadeko benta) AMORE Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) ASKATA Begiak okertuta (Lin Ton Taun) BEGIAK Bi Minutuero (Hertzainak) BIMINU Dub manifest (Fermín Muguruzal) DUB Eguzker (Hertzainak) EGUZKERO EH Sukarra (EH Sukarra) SUKAR Eos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) ELLOS Enamorado de la muerte (RIP) ENAMO Entzuidazu (Aterking's) ENTZU Etorrizuna (Etsaiak) ETORKI Ezer ez da betiko (Ken7) EZER Gora Herria (Negu Gorriak) GORA</p>	<p>Hator Bel-Air (Bide Ertzean) BELAIR Haizea (Ken7) HAIZEA Hegal egiten (Itoiz) HEGAL Ikusi (Delirium Tremens) IKUSI Iargia (Ken 7) KEN Imperuen ate joka (Gatibu) INPER Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) JOKIN Kaixo (Urtz) KAIXO Lau Teillatu (Itoiz) ITOIZLAU Laztana (Latzan) LAZTA Lotuta egon arren (Kokein) LOTUTA Loreboa (EKKXU) LORE Marea Gora (Itoiz) MAREA Musturrek sartunde (Gatibu) MUSTURREK Nicaragua (Kortatu) NICA No time for love! (Hertzainak) NOTIME</p>	<p>Salve (La Polla) SALVE Sarri Sarri (Kortatu) SARRI Sorginen Izezan (Exkixu) SORGIN Txatxo (Zarama) TXATXO1 Txus (La Polla) TXUS</p> <p>Trikitixa</p> <p>Bexamele ta pastela (Maixa ta biari) BEXAMELA Bokespok (Kepa Junkera) BOKESPOK Hik lan eta nik jai (Tapia) HIK Itsas ontzi baten (Kaxiano) ITSAS Kupela (Epede eta Larrañaga) KUPELA Mia galdera (Alaitz / Maider) MILAJ Nirekin (Gozategi) GOZATEGI Ny Hirahira (Kepa Junkera) HIRA Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) TXANPON</p>
---	---	--

LOGOAK (SMS 1) KODEA

SATANAS 	EHZ 	SORGIN4 	AIZKORAK
TARTALO 	IKURR3 	I ORA 	BABAK
BASAJAUN 	IKURR5 	LAU2 	ARRANAK

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaituzte zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitziera bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.

* Euskalmet deitu: 900 84 02 00 telefonora. * Vodafone deitu: 123-ra. * Movistar deitu: 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu: 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logok. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu: 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com